

berrobiberri^{'07}

BERROBIKO URTEKARIA
8. zenbakia 2007ko abuztua



**Bizibeharraren
beharrez etorri eta
“Berrobitartuak”**

Excavaciones **ORY** S.A. *Jesús Alegria*



Avda. Premita de Iruña, Nº 20 - 1º A. 31008 - PAMPLONA (Navarra)
 Tfños: 948.17.49.46 - Fax: 948.17.11.60
 Móviles: 609.44.31.29 - 696.97.51.10



Berrobiko Udala
Euskara eta Kulturarekin



IBARBURU
 merkatutxoa

SORONEA
 baserria
 eta denda ekologikoa



Letxuga kalea, 8 · Tolosa · ☎ 943 016 868

Euskalherria 51 · Ibarra



- Eguneko menuak
- Menu bereziak
- Familia eta koadrilentzako bazkari eta afariak

Leitza bidea 21 • Tel.: 943 672 828 • 20491 BELAUNTZA



Munksjö
 DECOR

Munksjö Paper, S.A.
 Eldza - 20453 Beriolegui, España
 Tel. +34 943 683 032
 Fax +34 943 683 398
 www.munksjo.com/decor

*Laminatu plastiko dekoratibetarako
 paper basoa*


Papel base para laminados
 plásticos decorativos



... oltre la carta
 ... algo más que papel
 ... more than paper
 ... mehr als Papier

1974-75

ikasturtea



lazko BerrobiBerri aldizkarian, 1963. urteko eskola argazkian, ahalegin franko egin genuen ume sail guzti horren izen-abizenak jartzeko eta zuzen jartzeko, baina ahaleginak ahalegin, ezin izan genuen guzti-guztiak nor ziren zehaztu. Geroztik hainbatek jarri gaituzue arrasto zuzenean, eta hona hemen berriro 1963. urteko argazki hura, falta ziren umeen izenekin. Eskerrik asko, beste behin, batetik eta bestetik aztarnaren bat eskaini diguzuen guztioi.

- 1 Petra Mateos
- 2 Josefa Ropero
- 3 Ana Maria Mateos
- 4 Juan Antonio Ocampo
- 5 Nieves Ocampo
- 6 Angel Ocampos
- 7 Fernando Mateos
- 8 Francisco Mateos

non zer : : : : :

- 4-5 Jaiotzak eta heriotzak
- 8-9 Inkesta: euskararen egoera herrian.
- 11 Purificacion Jimenez, lehen alkate emakumea Berrobin.
- 12-13 Dortoka harria
- 14-15 Udala Mintzo
- 16-18 Udal hauteskundeak.
- 19-21 Kanpotar berrobitartuak
- 23 Panel fotovoltaikoen "baratza" Teilerin
- 24-27 Argazki zaharrak
- 29-31 Agenda 21 Berrobin
- 32-33 Ion Alduntzin
- 34-38 Urtetik urterako berriak

Lantaldea: Niko Artola, Iñigo Aurkia, Rosa Aurkia, Agurtzane Belaunzaran, Elena Berakoetxea, Aloña Izagirre, Bittor Madina, Begoña Olamusu, Ramon Olasagasti.

Kolaboratzaileak: Ainhoa Alonso, argazkiak utzi dizkiguten guztiak, informazioarekin lagundu digutenak, publizitatea jarri dutenak... Eskerrik asko guztioi!

Lege gordailua: SS-27 / 2000

Berrobin, 2007. urteko abuztuan



Unax Zudaire Aurkia

2007/06/28

Gurasoak: Xabier Zudaire eta Rosa Aurkia



Ander eta Naroa Agirretxe Agirre

2007/02/14

Gurasoak: Juan Andres Agirretxe eta Marta Agirre



Aitor Karrera Atxukarro

2007/07/12

Gurasoak: Igor Karrera eta Amaia Atxukarro



Oier Artola Ibañez

2007/06/16

Gurasoak: Xabier Artola eta Izaskun Ibañez



Iker Blanco Olaria

2006/11/24

Gurasoak: Fernando Blanco eta Rosa Olaria



June Jimenez Unanue

2007/03/11

Gurasoak: Oskar Jimenez eta Bego Unanue



Aratz Arzelus Aranburu

2006/10/09

Gurasoak: Garazi Aranburu eta Iñaki Arzelus



Danel Roca Larrinaga

2007/01/15

Gurasoak: Cesar Roca eta Miriam Larrinaga



Jose Ropero Nogales

Jaio: 1933/03/07


Hil: 2007/03/29



Juan Antonio Ropero

Jaio: 1961/11/11

Hil: 2007/02/18



Julian Churio

Jaio: 1934/03/04

Hil: 2007/07/06



Josefa Gorostidi

Jaio: 1929/11/14

Hil: 2006/12/12



Anastasia Armendariz

Jaio: 1925/04/14

Hil: 2006/09/28



Catalina Ayestaran

Jaio: 1935/06/24

Hil: 2007/08/03

Sarriópapel eta C

(Uranga faktoria)



ekoizten du



Sarriópapel y Celulosa S.A.
Uranga Fábrica
Ospela auzoa, 30 · 20493 Berrobi (Gipuzkoa)

Celulosa S.A.



- **Autokopiatiborako oinarrizko papera (35-90 g/m² artean)**
- **Termikorako oinarrizko papera (40-50 g/m² artean)**
- **Estukadorako oinarrizko papera (60-90 g/m² artean)**
- **Brillo handiko estukadorako oinarrizko papera (50-80 g/m² artean)**

Gaia: Euskararen egoera

- 1. Berrobin euskara aurreraka edo atzeraka doala uste duzu? Zergatik?**
- 2. Euskaraz ez dakien jendearentzat, euskara ikasteko klaseak herrian jartzea zer iruditzen zaizu?**



Arantxa Mendizabal

1. Euskara aurrera bidean ote doan ez dut hain argi ikusten. Egia da ni Berrobira etorri ezkerotik euskaraz gehiago egiten dudala baina, ikasketak ere erdaraz egin nituen, eta askotan gure artean, erdarara jotzeko ohitura handia dugu, eta gure umeentzat adibide txarra dela uste dut. Gainera gure artean erdaldun bat badugu, guk aldatzen dugu hizkuntza. Kontzientzia kontua da.

2. Ideia ona litzateke. Egia da bai, inmigrante ugari ditugula herrian, bai Espainiatik etorriak eta baita munduko beste lekuetatik eta ideia ona litzateke helduentzat euskara klaseak jartzea. Gainera azken hauek erdara ikasten dute, baina euskara ikastea ere beraien-tzat ona litzateke.



Alberto Belaunzaran

1. Aurreraka doa. Eskolak indar handia egin baitu, herriko ume guztiek dakite euskaraz. Gure garaian berriz, eskolan erdaraz ikasi zitekeen eta ume batzuk euskaraz oso gutxi hitz egiten zuten. Egia da, orain, taldean gaudenean denek euskaraz badakigu ere, norekin hitz egiten ari garen arabera, erdaraz hasten garela. Ohitura kontua da. Hala ere, bi hizkuntza jakitea aberasgarri da. Baina herritar guztiek bi hizkuntza menderatzea litzateke ona.

2. Ondo ikusten dut euskara erakustea. Baina borondate handia behar du jendeak, arduragabekeri handia dago. Herrian urte asko daraman jende asko dago hitz bat bakarra ere euskaraz egiten ez duena, eta lotsagarria iruditzen zait.



Jose Atxukarro

1. Mejoran doa. Lehen baino askoz gehiago hitz egiten da euskaraz herrian. Duela 20 bat urte, gazteek erdaraz egiten zuten, gurasoak euskaldunak izan arren. Eta orain ume guztiek dakite euskaraz, erdaldunen umeek ere euskaraz ikasi dute eta hori etorkizunerako ona da. Hala ere, tartean erdaldunen bat badugu, gu erdaraz hasten gara, eta kulpa gurea da.

2. Oso ondo ikusten dut kanpotarrei euskara erakustea.



Maribi Agirretxe

1. Aurrera bidean doa dudarik gabe. Guk umetan, etxean euskaraz egiten genuen eta kalean erdaraz, Orain ordea, ume guztiek dakite euskaraz eta beraien artean ere euskaraz aritzen dira. Gurasoek euskara ez badakite ere, haurrak eskolan ikasten dute eta orain urte batzuk baino egoera hobea dela uste dut.

2. Helduentzako euskara ikastaroak jartzea ongi ikusten dut, umeek euskaraz eskolan ikasiko baitute.



Lontxo Irazusta

1. Erdaraz gehiegi egiten da herrian. Umetan ez nekien nik erdaraz, maistrak erakutsi zigun. Meza ere, latinez ematen zen. Orain berriz, meza euskaraz eta erdaraz ematen da. Umeek badakite euskaraz, baina okerrena, euskaraz dakiten gurasoak beraien artean erdaraz aritzen direla da, eta batzutan umeei ere erdaraz egiten die! Euskara galdu, ez da galduko baina.....

2. Euskaraz ez dakitenei euskara erakustea ondo legoke. Baina borondate handia behar du jendeak eta ez dakit nik jendeak gogorik izango ote duen.



Miren Belaunzaran

1. Tabernan 15 urte daramatzat, eta euskaraz gehiago egiten dela sumatu dut gazteen artean. Lehen gazteek, erdaraz egiteko joera handiagoa zuten, baina orain ohiturak aldatu dira. Eskolak ere lan handia egin du, ume guztiek euskaraz egiten baitute.

2. Laguntza ematea oso ondo ikusten dut. Baina jendeak gogo handia behar du ikasteko. Urte asko daraman jendea bada herrian eta ez dute ikasi, agian hauek eta orain kanpotik datorren jendeak aukera ona izan dezake euskaraz ikasteko.



Eguneko menuak ·
Menu bereziak ·
Asteburuko menuak ·
Karta ·

☎ 943 683 078
Berrobi



**Berebilen salmenta
eta konponketa**

San Esteban auzoa, 6 · 20400 Tolosa
☎ 943 654 875 / 943 650 162

Xanti harategia

Xabier Errazkin

Bertako okela eta artisau
eran egindako txerrikiak

Usategi Berri etxea · ☎ 943 683 311 · Berrobi

Maria Pilar Vega

BOTIKA

Jose M^a Goikoetxea, 31 · Berrobi
☎ 943 683 602



SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11 · ☎ 943 674 074 · Arostegieta, s/n · ☎ 943 676 093
Tolosa



Teileri

baserria

Lore eta barazki biologikoak

☎ 943 683 427



Lesmes Belaunzaran

TXERRI ABELTZANTZA

Usarre baserria · ☎ 943 683 193 · Berrobi

Begi Gorri

GAZTETXEA

Purificación Jiménez

Berrobiko Alkate 1933an

1931ko apirilean Errepublika garaia hasi zen. Berehalaxe, Gobernuak emakumeei boto eskubidea eta kargu politikoetan aritzeko legea onartu zien. Udal hauteskundeak egin ziren Errepublikako lehenengo urtean. Baina Gipuzkoako hainbat herri txikietan, eta ez ziren gutxi, hautagaitza bakarra zegoelako edo hautatu beharreko hautagai adina aurkeztu ez zelako, ez zen bozketarik izan. Berrobin bertan, esaterareko. Horrela gertatu arren, hauteskunde legearen 29. artikulua aplikatuz, herritar batzuek udal karguak behin-behinean hartu zituzten. Berrobizarreko Carlos Ibarbia, alkate. Eta Fermin Elizegi, Juan Iturriza, Juan Alberdi, Jose Gabino Bereziartu eta Eusebio Uria zinegotzi.

Urte eta erdi beranduago, 1933ko urtarrilaren hasieran, ordea, aurretik hauteskunderik izan ez zen herrietan agintean zeuden alkate eta zinegotziak beren karguetatik kendu zituen Gobernuak. Apirilera, Udal hauteskunde berrien deia publikatu zuen. Eta urtarriletik apirila bukaera arteko hutsunea betetzeko, legearen aginduz, herri txiki horietan, (Berrobin barne) "Gestora Batzordeak" sortu ziren. Gestora hori, legez, zozketa bidez ateratako bi herritarrek eta funtzionario bategen osatu behar zuten.

Berrobin, German Etxeberriak, Gregorio Urangak eta Maxima Purificación Jiménezek (bera zen urte haietan Berrobin funtzionario bakarra) osatu zuten Gestora. Idazkaria Cipriano Uranga izendatu zuten. 1933ko urtarrilaren 24ean, Gobernuko Ordezkaría aurrean zutela, hiru Batzordekideek alkatea aukeratu zuten euren botoen bidez. Hiru botoak Maxima Purificaciónek jaso zituen.

Alkate berria herriko maistra zen. Iruñakoa jaiotzez. 20 bat urte egin zituen Berrobin irakaskuntzan. Ezkongabea



zen, ilobak bazituen, noiz edo noiz bisitan etortzen omen ziren eta. Erretiroa hartu ondoren, Iruñera joan zen eta hango "Miserikordian" hil zela uste dugu. Berari buruzko beste daturik ez dugu aurkitu.

Behartuta edo ez, garai hartan ausardia eduki zuen alkatez hartzeko. Hiru hilabete eta erdi iraun zuen Alkatez eta denbora horretan (aktetan agertzen denez) finfin eta astero (igandero goizeko hamaiketari) egiten zituzten ohiko bilerak: hamabost gutzira. Maiatzaren 10ean utzi zion bere alkate lanari, aurreko hilabetearen Estatu osoan Udal Hauteskundeak egin ondoren. Sei zinegotzien botoek erabaki zuten nor izango zen hurrengo alkatea: Sabino Urkizu Zabaleta, hain zuzen.

Gipuzkoan, antza denez, 1933an, Berrobikoaz gain, beste zazpi emakume izan ziren alkate. Herri hauetan, hain zuzen: Azkoitia, Zestoan, Anoetan, Legazpin, Seguran, Albizturren, Ikaztegietan...

Hasierak beti omen dira zailak. Elurretan ere, aurrean biga urratzen duenak atzekoen eginahala errazten du. Geroarako eredu eta aurrea hartu zuelako ekarri dugu Berrobiberi urtekari honetara Maxima Purificación Jimenezen alkatezaren berri hau, berrobitarrontzat guztiz ezezaguna izan zaigun albistea.

Orain normaltzat jotzen dugu emakumeak alkate izatea. Gure garaian ohitu gara ikustea, egin beharreko lana betetzen. Hala behar du izan. Orain dela 70 urte baino gehiago auskalo zer harrera izan zuen emakume bat horrelako karguan ikustea. Herritarren pentsamenduak pantaila batean idatzita ikusiko bagenu! Zorionez, aurrerakuntzak geure pentsamoldea ere aldatu du. Eskerrak! Ea hementik lau urtera emakumea dugun Berrobiko alkate.

Berrobiko Dortoka Harria

Inguruko historia txikia

Azken urteotako festetan herri kirol probetan harri latz berezi samar bat ari da plazaratzen, harri traketsa eta moldagaitza. Bere itxura borobilak dortoka bat ekartzen du gogora. Nikasio Armandariz da harri hau agertzearen erantzule nagusienetakoa.

Urteak zeramatzan Nikasiok gaur eguneko gazteen indarra orain belaualdi batzuetakoekin aldaratu nahian. Ikusten zituen bere inguruan sasoiko gazteak, itxuraz oso indartsuak baino bere zalantzak bazituen harri haundi eta bortitzen aurrean izango zuten gaitasunaz. Bizimodua asko aldatu da, eta lehen eguneroko lanetan indar saio ederrak egin behar baziren ere, gaur egun bai lanean makinek aurrerapen asko ekarri dutelako eta bai eguneroko bizitzan jarduerak "bigundu" egin direlako, gizartean halako moldaketa bat izan da, Nikasioren ustez. Lehen indarrez egin behar ziren lan guztiak eta gaur egun burua erabiltzea da garrantzitsuena bere aburuz. Honek gizartearen gaitasunetan eraginik izan zezakeela pentsarazten zion.

Horrela bere aspaldiko zalantzak behingoz argitu nahian "Estankoko" Ramon Egigurenekin jarri zen kontaktuan. Hark harri mundua hurbilago zuenez ea 100kg inguruko harriren bat lortzerik bazuen galdetu zion era berean bere asmoen berri emanaz. Ramonek ere horrelako kontuak gustoko izanik bi edo hiru egunetara agertu omen zitzaion harrizarra berarekin zuela. Nikasiok bere baxuan duen pisu batean bere zama neurtu zuten lehenik, Nikasioren kontuak urrun xamar geratzen ziren, 127kg zituen

Gehitxo izango ote zenaren arduraz gauza bat egitea erabaki zuen Nikasiok, herrian berak altxatzeko gai ikusten zituen herritar batzuk eman zituen bere baxura, bertan harria altxatzeko proba egin zezaten eskatzera. Euskaldunon eta harriaren artean badagoenez nolabaiteko elkar erakarpena joandako inork ezin izan zion saiatzeari uko egin. Lehenik joandakoak huts egin zuten nahiz eta bateren batek gerriraino altxatzea lortu izan zuen. Gero, artean Urkola taberna irekia zenez, bertan zeuden beste herriko gazte batzuei aipatu zion Nikasiok

Berrobiko Harriaren I Txapelketa

Joan den urteko San Agustinetan ospatu zen lehenengoz Berrobiko Harriaren Txapelketa. Txapelketa honetan Berrobitarrek gure egin dugun Dortoka harria plazaratu zen eta momentuan harri traketsekin punta puntan dauden harri-jasotzaileak izan ziren lehen herriko pilotalekuan. Bertan bildu ziren Izeta II.a, Izeta III.a, Joseba Ostolaza eta Aimar Irigoien.

Hiruna minutuko bi txanda izan zituzten harria ahalik eta gehienetan bizkarreteratzeko eta Izeta II.a gailendu zen saioan; 20 altxaldi eman zizkion Izetak eta sarirako zeuden txapel, garaikur eta 500 euroak bereganatu zituen. Bigarren lekuan Joseba Ostolaza izan zen 14 altxaldirekin eta Izetall.ak eta Aimar Irigoienek 12na altxaldi eman zizkioten harriari.

Herriko pilotalekuan bildu zen jendetza izugarria izan zen eta komunikabideen aldetik ere jarraipen handia izan zuen lehiak: Euskadi Irratian, adibidez, zuzenean eman zuten saioa eta hurrengo eguneko albistegietan ere berri eman zuten bai egunkariak, bai telebistak Bai harri-jasotzaileei eta bai komunikabideek bi aste lehenago ospatu zen Igeldoko harriaren txapelketarekin alderatzen zuten, hala saioa nola harria, eta batzuen iritziz gehiago kostatzen zitzairen harri-jasotzaileei gure harria paparretik bizkarrera altxatzea Igeldokoa baino.

Saioaren arrakasta ikusirik txapelketa hau bi urtez behin-edo errepikatzea erabaki da.





eta hauek ere demaren grinaz bustita hor joan ziren baxura proba egitera. Emaitza bera izan zen eta hauek ere ezin izan zuten Nikasiok belaunaldiei buruz zuen iritzia aldatu. Gerora, ahoz ahokoak bere lanak eginik, Belauntzar batzuk etorri zitzaizkion Nikasiori harriari buruz galdezka eta proba bat egiteko aukera eskatuaz. Arazorik gabe baiezkoa eman ondoren hauek ere burumakur joan behar izan zuten herritik bueltan. Azkenean ordea lortu zuen Nikasiok harria altxatzen ikustea, ez behin bakarrik baizik birritan altxa zuen Joxe Artola herritarrek harria bizkarrera.

Ordurako ahoz aho zebilen harriaren istorioa herrian eta baita Joxe Artolaren balentria ere. Harria Nikasiok berak bilatu zuela herriko errekan entzuten zen eta berak ekarri zuela bere kabuz harritzarra bere baxura, Joxek berriz aitaren batean altxa zuela harria bizkarrera eta antzekoak entzuten ziren horrelako kasuetan ohiko denez herri txikiotan.

Urte hartako festetan Nikasiok herriko alkatearekin hitz egin ondoren harria plazaratzea erabaki zuten. Herri ki-

rol emanaldietan Aimar Irigoien harri-jasotzailea zetorrela eta bere saioaren amaieran harri honekin probatzea eskaini zitzaion. Ideia gerora primerakoa izan zela ikusi zen, izan ere, Aimarrek bereak eta bi ikusi zituen harria bizkarreratzeko. Momentu horretan garbiago ikusi ahal izan zen harri hau altxatzeak bazuela bere mamia eta azkenean kostata izan bazen ere bi jasoaldi eman zizkion Aimarrek harriari. Ondoren, festa amaitzeko, herritarren batek proba egin nahi al zuen galdetu zen, altxatzen zuenarentzat saria eskainiz. Begirada guztiak momentu horretan Joxe Artolari zuzendu zitzaizkion entzundakoak egi izango ote ziren jakin nahian. Inor ez zen ordea momentuan proba hau egitera saiatu eta jaialdia bertan amaitu zen. Gauzak biltzen ari zirela eta jendearen gehiengoa alde egina zegoela ausartu zen ordea Joxe Artola beste proba bat egitera ondokoak beroturik. Berriri altxa zuen harria bere

gaitasuna beste behin erakutsirik. Gerora urtero plazaratzen da harria harri-jasotzaileen jaialdietan nahiz eta oraindik ez den inongo herritarren saiakerarik ikustea lortu jendaurrean.



Nikasiok aipatzen du, gauza hauek jakitea zaila dela aurrez onartuaz, bere ustez garai batean bazirela herrian gutxienez bi gizaseme harri hau bizkarreratzeko modukoak. Lapatzeko Joxe Mari Lizarralde eta Agotzaneko Pedro Zabala aipatzen ditu, bere garaian zuten indarrarengatik nabarmentzen omen zirenez. Garai batean, ordea, gauzak beste era batekoak zirela aipatzen du. Herriko gazteak denbora pasa eta lagun artean egiten zituzten mota honetako probak, ez du zerikusirik gaur egun ematen zaion oihartzunarekin.

Harriarekin oso gustora egonik, uste du herriko jendea parte hartzera ausartzeko harria 100kg ingurukoa izan beharko lukeela, bere haserako ideiak mantenduaz, eta onartzen du harri moldagaitz hau altxatzeko indarraz gain abilitate izugarria behar dela.

Urte berezia izan da 2007a: Udal hauteskundeen urtea. Hori dela eta, Udala Mintzo tarte hau ere laburxeagoa izango da, datozen urteetako asmoen berri hauteskunderi buruzko orrietan emango baitugu. Segidan, iazko Sanagustinetatik hona egindako lanak azaldu dizkigute Udaletik.



Plaza, arauen onarpena...

Iazko Sanagustinetatik hona egindako lanak

1. Maltxorroko bidea berritu da.
2. Urruti baserria erosteak eragindako zorra guztiz ordaindu da.
3. Erreka bazterrean aisialdi gunea egiteko terrenoa edo lursaila erosi da. Mahaiak, bankuak, erretegiak, zuhaitzak eta abar jarriko dira gunen horretan.
4. Kale, auzo eta etxebizitzetako seinalizazioa egin da.
5. Berrobiko Udalak onartutako Hiri Antolaketako Arauei oniritzia eman dio Gipuzkoako Foru Aldundiak. Honekin loturik, Berrobiko Hiri Antolaketako Arauen berrikuspenaren Dokumentu Bategina onartu da 2007ko maiatzaren 18ko Udal Batzarrean.
6. Eskola berria. Herriko umeek igaro duten ikasturte honetan inauguratu da San Andres eskola berria. Eskolan bertan haurtzaindegirako gela bat prestatu da irailean hurrengo ikasturtearekin batera martxan jarzteko.
7. Plaza berria. Kiosko ederra eta lurrazpiko garajeekin. Denera, 24 garaje. Bertan, aldagelak izango dira duxa eta guzti. Kirol ekintzak eta abar direnerako, festetako herri krosa, aizkolari edo harri-jasotzaileen saioak eta abar. Komun publikoak ere jarri dira. Ondoan parkea egin da umeentzat. Jolasteko azpiegitura guztiak jarrita daude.

2007ko Aurrekontua, behin behinekoa

1- ZERBITZU OROKORRAK

1.1. Udalkideen ordainsari, protokolo, zesta	29.750 €
1.2. Udaleko langile, gizarte asegurantza, aseguruak, dietak	169.917,35 €
1.3. Aholkularitza lanak (Arkitekto, Asesore...)	31.000 €
1.4. Bulegoko argi, telefono, materiales, informatika	25.500 €

2- GIZARTE SEGURANTZA, BABESA ETA SUSTAPENA

2.1. Prebentzio ijarduerak, etxez-etxeko zerbitzua, gizarte larrialdietarako laguntza	17.100 €
---	----------

3- GIZARTE ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPEN EDO PRODUKZIOA

3.1. Hezkuntza estola publikoa	6.400 €
3.2. Udal eraikuntzen mantenimendua	2.000 €
3.3. Hirigintza eta Arkitektura:	
a) Maltxorro bidea	1.899 €
b) "Urruti" baserriaren erosketa	60.101,2 €
c) AASS berrikuspene testu batekina	11.663,9 €
d) San Andres eskolako oinarritzko proiektua	13.471,38 €
e) Iriarte plazako urbanizazioa	40.000 €
3.4. Uraren kudeaketa	56.000 €
3.5. Ondakinen kudeaketa	28.290,60 €
3.6. Kultur sustapena:	
a) Liburutegia	2.600 €
b) Euskera, Kultur Astea, Jaiak	50.600 €
3.7. Bide publikoak. Mantenimendua	19.100 €

4- EKONOMI ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA

4.1. Errepide eta bide publikoak	20.000 €
4.2. Nekazal garapena eta abeltzaintza	2761,33 €

5- ZOR PUBLIKOAK

5.1. Mailegu edo prestamoen amortizazio eta interesak	40.056,42 €
---	-------------

Aipatu gabe gelditu diren atalak **26.044,81 €**

GUZTIRA: **664.252,01 €**



Udal hauteskundeak



Ekainaren 16an, Udal taldea osatu zen ekitaldian.


Hiru hautagai zerrenda aurkeztu ziren Berrobin 2007ko Udal hauteskundeetan: batetik Giroa taldea, bestetik Ortzadar taldea eta, hirugarrenik PP. Maiatzaren 27an izan ziren hauteskundeak. Aurrez, herri-hautagaitza bakoitzak bere egitasmo eta proiektuen berri eman zuen programen bidez. Giroak deialdi zabalera ere egin zuen herri osoarentzat bere asmoak aurkezteko.

Azpimarratzekoa izan zen partaidetza:

Hauteskundeetako emaitzak hauek izan ziren azkenean: Giroa taldeak 226 boto, Ortzadar taldeak 180 boto eta PP alderdiak 4 boto. Beraz, hurrengo legealdirako udal

taldea honela banatuta geratu zen: Giroak lau zinegotzi eta Ortzadarrek hiru. Gehiengo eta gutxiengoan gaineratik, herriaren onerako izango diren proiektuak lantzea, denen artean eztabaidatzea, nor bere ikuspuntua ematea, elkar ondo hartzea eta, ahal den neurrian, egitasmoak adostea hori litzateke udalarentzat eta, ondorioz, herriarentzat osasungarriena.

Proiektu batzuk badira abiatuta, beste batzuk abiatzar eta beste hainbat abiatzeko asmoan. Talde bakoitzak hauteskundearen inguruko bere balorazioa egin du aldizkariarentzat, eta legealdi honetarako asmoen berri ere eman digu.



Giroa

“Hurrengo lau urteetan ere,
buru belarri segiko dugu lanean”**Nola baloratzen dituzue hauteskudeetako emaitzak?**

Orokorrean, ondo. Lan asko egin dugu eta jendeak nola erantzungo zuen, kezka bagenuen. Baina, aurrekoan baino emaitza hobekiago izan ditugun arren, oposizioa, gu baino gehiago igo da eta horrek, dezepzio puntu bat ere utzi digu, ez baitakigu herritarrek zer baloratu duten gehiago botoa ematerakoan, egindako lana eta programa, edo bere sentimendu eta harreman pertsonalak. Dena den, hurrengo lau urteetan ere, buru belarri lanean jarraitzeko asmoa dugu.

Zein dira zuen helburuak lau urte horietan?

Lehendabizi, hasitakoa bukatu. Haurtzaindegia egokitzen ari gara, Irailean ireki ahal izateko. Plaza berriko kiosko azpiko komunak eta garajeen ondoko aldagela eta dutxa ere bukatzen ari gara. Merenderoko obrak ere martxan jarri dira, eta datorren urtean bukatzea espero dugu. Gainera, eskola zaharreko horretan, prezio adostuko 6 etxebizitzako blokea egiten hasi behar dute, aurten bertan. Azpian, medikuaren kontsulta jarriko da eta baita kutxaren bulego bat ere.

Bestalde, aurrera begira, Urruti aldean, 2000-3000 m2 ko aparkaleku bat egin nahi dugu eta terrenoen jabeekin hitz egiten ari gara. Garbi dago falta egiten duela, eta horregatik, plenoan berehala erabaki behar dugu, denboraldi batean gutxienez, plaza berria aparkatzeko erabili behar den ala ez, nahiz eta hori ez izan gure asmoa hasiera batean.

**Ermita aldean ere badago premia.**

Badakigu bai. Horregatik, Txoko-Maiteren eta Itur-Gainen atzean beste aparkaleku bat egiteko proiektua dago. Hau eta Ermitarainoko espaloia, hemendik urte pare batera egin ahal izango dira, seguru asko.

Onartu diren arau subsidiarioen arabera, nola gelditzen da etxebizitza?

Hurrengo 4 urteetan, 93 etxebizitza egiteko baimena dago, hauetatik, 22 prezio adostukoak izan behar dute eta 12 babes ofizialekoak. Esan dugun bezala, aurten, eskola zaharreko horretan hasiko dira. Gainontzekoak, promotoreen esku dago noiz egin.

Non eta nolakoak izango dira etxebizitza horiek?

Eskola zaharreko ez gain, plaza berriaren aurrean 16 salmenta librekoak eta 4 prezio adostukoak. Sorondotik Usategi-Berriren atzeraino 19 salmenta librekoak eta 12 prezio adostukoak. Birautz eta Munttegiko sailetan 24 salmenta librekoak, eta Txoko Maiteren ondoan, 12 babes ofizialekoak.

Eta Arotzane azpiko bifamiliarrak?

Momentuz, proiektua geldirik dago, baina tramiteak bultzatzen ari gara, eta seguraski 4 hilabete barru onartuko da.

Bukatzeke, zertan dira Urrutin Kultur Etxea egiteko asmoa eta Mayensako zubirainoko espaloia?

Bietan arazo nagusia dirua izan da. Urrutiko proiektuak 600.000 euroko (100 milioi pezeta) aurrekontua du eta hor gabiltza Eusko Jaurlaritzan eta Foru Aldundian, diru laguntzak lortu nahian.

Espaloia kasuan berriz, batetik tramiteak oraindik ez dira bukatu eta bestetik denetarako dirurik ez genez, plazari eta parkeari eman genion lehentasuna

Hautagaiak: Jon Jauregi, Aitor Mendiola, Maria Jesus Iturriza, Pili Martija, Azibar Zabala, Niko Artola, Iñigo Aurkia, Ramon Olasagasti, Sabino Pineda eta Imanol Izagirre.

Zinegotziak: Jon Jauregi, Aitor Mendiola, Maria Jesus Iturriza eta Pili Martija.

Ortzadar

“Etxebizitzak herriaren beharren arabera egin behar dira”



Hautagaiak: Peio Esnaola, Arkaitz Aurkia, Ainhoa Jauregi, Arantzazu Goldaraz, Nerea Sasieta, Nora Hernandez, Florentino Carballes.

Ordezkoak: Migel M^o Elustondo, Iñaki Armen-dariz, Luis Javier Erauskin.

Zinegotziak: Peio Esnaola, Arkaitz Aurkia, Ainhoa Jauregi.

- Zein balorazio egin duzue hauteskundeetako emaitzen inguruan?

Ona. Ia botoen erdia jaso dugu, eta hori zen gutxi gora-behera aurreikusita genuena.

- Zeintzuk dira zuen asmoak hurrengo 4 urteetarako?

Gure asmoek ez dute asko balio, kontutan izan da minorian gaudela. Ikusi egin beharko da, beste taldeak, gehien-goia duenez, zenbateraino utziko digun parte hartzen.

- Arau Subsidiarioak onartu berriak dira. Zer deritoxue bertan azaltzen den etxegintza planari buruz?

Gehiegi direla 4 urtetan egiteko. Gure ustez, etxebizitzak egin behar dira herriaren beharren arabera, eta gainera, herri kontsulta baten bidez erabaki beharko litzateke, zenbat eta zein eratakoak egin.

- Aparkalekuak falta direla diote herritarrek...

Bai, batez ere herri erdian, beharra handia ikusten dugu, egin diren obrekin espazioa saturatu egin baita. Eta aurrera begira, Arau Subsidiarioetan proposatzen den etxe kopuruarekin, arazo hori gero eta handiagoa izango dela iruditzen zaigu.

- Aipatutakoez gain, zeintzuk dira zuen ustez, herriak dituen premia handienak?

Gure programan azaltzen den bezala, herriko eta auzo-etarako sarbideak hobetu behar dira. Zerbitzuen arloan berriz, zabor bilketa nahiko exkaxa da. Ontzi handiagok eta lur azpikoak jarri beharko lirateke. Bestalde, autobus zerbitzua ere ugariagoa izan beharko luke.

OSTATUA

Urrope plaza · Leaburu
☎ 943 671 548



Bizibeharrak Berrobira ekarritako haien testigantza...

Gerraosteko urte zailetan, bizimodua nonbaitetik atera behar eta Euskal Herrira lanera etorritako hainbat lagunek Berrobin aurkitu zuten bizilekua. Ez da gozoa izaten babak eltzetik atera behararren beharraz jaioterria, familia, txikitako eta gaztaroko inguru osoa utzi eta etorkizun zalantzaz beteari heltzea. Hori baino abentura handiagorik! Hasierako zailtasunak, errezeloak, hizkuntza, garai hartako Berrobi, xirimiria, herrimina... kontu askoren inguruan hitz egin dugu kanpotik Berrobira etorritako haietako batzuekin.

Felix Rodrigo eta Carmen Rodrigo Cuencako Almonacid del Marquesado herrikoak dira jaiotzez, Amelia Morales Alaejoskoa (Valladolid), Manuel Rodas eta Carmen Malvido galiarrak, Cangas de Morrazo herrikoak eta Enrique Martin Alcalá de Guadaíra (Sevilla). Mahaian eseri eta trufalari hasi dira, euren inguruan sarri askotan entzundako txantxak egiten. Enriquek ohiko zitzuan dantzatu du mingaina, eta ulertu ezinik, hala bota dio Ameliak: "Pero tu que has hablado en Cristiano, o en vasco, o en que idioma has hablado?". Hala jasoa geratu da ondorengo solasaldia.

Enrique Martin: Nik Euskal Herrian izan dudana arazorik handiena: ura. Ura, bai. Ni ekainean iritsi nintzen hona Sevillatik, han egiten duen bero sapatik. 1965. urtean. Gauerdiko 00:00etan sartu nintzen Madrilgo Norteko estazioan eta arratsaldeko 19:00etan agertu nintzen Tolosan. Postako tren hartu nuen, mantsoa oso, egurrezko eserlekuekin. Ipurdian kailu ederra eginda heldu nintzen. Aldiro-aldirio galdetzen nion interbentoreari: "Falta mucho pa Tolosa?". "Pa Zaragoza?", galdetzen zidan berak. Nire Sevillako azentuekin ez zidan piperrik ulertzen. Oso itxia egiten nuen lehen. Irtsi nintzenez Sanjoan jaiak ziren Tolosan. Ez dut behin ere ahaztuko. Denak dantzari ari ziren. Triangulora joan ginen Pepi nire andregai (egun nire emaztea dena) eta biok, gu ere dantzara. Esandakoa: ura izan zen, hasieran behintzat, nire arazorik handiena. Sevillako berora eta lehortera ohituta, hilabeteak eta hilabeteak eurlan pasa beharra, hori gogorra egin zitzaidan oso. Betei lainotuta, bete eurlan... Emazteari esaten nion: "Baina ze kristo, hemen ez al du inoiz atertzen?".

Felix Rodrigo: Ni 1964an iritsi nintzen. Negu hura ere ez zen gozoa izan. Gure herrian ia ez zuen euririk egiten, eta hemen, berriz, eguna joan, eguna etorri, euria eta euria, xirimiria gelditu gabe. Ordura arte ez genuen xirimiriaren berririk, baina ederki jakin genuen, bai, zer zen etorri ginenean.

Amalia: Ni Alaejos herrikoa naiz, Salamanca eta Valladolid erdibidean dagoen herri batekoa. Historia handiko herria da. Printze arabiarren bat bizi izan omen zen bertan eta hortik dator izena. Han ere, igual pasatzen dira lauzpabost hilabete tantarik gabe.

Felix Rodrigo: Ni Cuencako herri batekoa naiz, Segobriga-koa. Herri ederra da. Museo polita egin dute, hango erromatar aztarnategiaren inguruan. Jaio, handik gertu jaio nintzen, Saelves herrixkan. Ganadua genuen etxean,

sobrante handirik gabe bizi ginen, baina tira, hainbestean. Hala ere, niri ez zidan bizimodu hark grazia handirik egiten, eta anaiaren haren nuenez, hark animatuta etorri nintzen Euskal Herrira. Autobusean sartu, Taranconera joan, handik trenean Madrilera eta Madrilik beste tren batean Tolosara. Eta Tolosatik Galoren etxera. Herrietik inoiz atera gabea nintzen eta ez dira kontu errazak horiek. Lauzpabost egun egon nintzen lana topatu ezinean, xirimiriarekin gogaituta, inor ezagutzen ez nuela. Azkenean, eraikuntzan hasi nintzen lanean, Lezon. Eta handik bi egunera, elektrizitate tailer batean, Grosen. Aprezio handia zidan hango nagusiak. Eta gero, anaiaren eskutik, kautzoko gomen lantegi batean. Han egon nintzen Berrobiko pisoen berri jakin genuen arte. Zailtasunak izan ziren bidean, hasieran batez ere, baina inoiz ez nuen atzera egiterik pentsatu. Ez naiz inoiz damutu bere garaian hartutako erabakiaz. Egia da, 20 urte nituen herrietik atera nintzenez, ez neukan ezer galtzeko.

Carmen Rodrido: Gu ere oso gertukoak gara, Almonacid del Marquesado herrikoak. Aita artzaina genuen, eta mendian Segobrigako muinoetan ibiltzen ziren. Felixen aita bezala. Artean, ordea, deskubritzeko zeuden erromatarren garaiko aztarnategi horiek. Geroztik aurkitu zituzten.

Amelia: Ikustekoa da lekua. Erromatarren zirkua non egiten zen, lehoietara botatzen zituzten lekua eta abar ederki antzematen dira.

Enrique: Ni ere gaztelu baten magalean hazia naiz, Alcalá de Guadaíra herrian, Sevilla ondo-ondoan. Han ez zen ez terrenorik pagatzen, ez ezer, bakoitzak nahi zuena hartzen zuen, eta jendilaje dezente elkartu zen bertan. Ni haitzulo moduko batean hazi nintzen. Argirik eta urik gabe...

Felix Rodrigo: Gaur ere gertatzen da. Kanpotik datozenen inguruan, batzuek diote beharrezko direla, espainiarrok ez dugulako lanik egin nahi, eta besteek, berriz, diote lanik gabe utziko gaituztela.

Enrique Martin: Ba ni Martin Gandul naiz, Gandul abizenek, eta bizitza guztia daramat lanean.

Manuel Rodas: Gu Pasai San Pedrorra 1964an heldu ginen, eta Berrobira 1967an.

Enrique Martin: Nire suiaren arreba baten bidez etorri nintzen. Suiaren arreba senarra alguazila zen; Angel zuen izena, kamioi batek hartu zuen azpian Rondilla kalean. Hark ekarri gintuen hona, familia osoa. Tolosako Udaletxe Zahararren ondoan, Igarondo zinema zegoen horretan bizi izan ginen hiru urtez, ezkondu aurretik. Oliden abizeneko batek eskaini zigun lana. Gero Norvegiarren torloju lantegian aritu nintzen, egun osoa kamioiak zamatzen, egun osoa euripean. Gero sartu nintzen paper fabrika. Tolosara iritsi eta hiru urte geroago iritsi nintzen Berrobira. 39 urte daramatzat herrian.

Felix Rodrigo: Kiko izan zen Berrobira iritsi zen lehena. Gazterik heldu zen oso, eta jada zaharra da...



Manuel Rodas: 1957an uste dut iritsi zela, ni baino zazpi urte lehenago. Mende erdia emango du Berrobin. Nikasioren garaje azpi horretan egon zen bizitzen hainbat urtez suiarekin eta erreginarekin.

Enrique Martin: Oroitzen al zarete neguan, arratsaldeko 17:00etan, oraindik ere argirik ez zegoenean? Etorri ginenean ez zegoen argirik kalean, beldurra ematen zuen etxetik ateratzeak ere, hainbeste mendiren artean... Goizeko 06:00etarako paper fabrikara oinez joan behar izaten nuen eskuargi txiki bat eraman behar izaten nuen.

Carmen Malvido: Etorri ginenean baserria besterik ez zegoen Berrobin, geroztik hasi ziren etxeak eraikitzen, Iturri-za gainekoa, Eleiz-Gaineko hau apaizetxea zena lehen... Iritsi nintzenean etxekoekin hitz egin eta hala esan nien: 'Gure herriaren igual-iguala da hau!'. Lauzpabost etxe eta errepi-dea, eta inguruetan lokatza, edo "lama" guk esaten dugun bezala. Gogoan dut tratante horietako bati astoa ia gerri-raino lurperatu zitzaiola gure etxe atzean. Bizilagun guztiek joan behar izan zuten laguntzera.

Enrique Martin: Gu bizi izan ginen etxea, Muñagorri, hori zen Berrobiko zaharrenetako bat.

Felix Rodrigo: Guk 1969an erosi genuen pisua. Gaur bizi garen hori. Bizpahiru urte zeramatzen eraikita eta, nik ez dakit zergatik, ezin zituzten saldu. Orduan izugarri merkatu zituzten, egunkarian irakurri genuen iragar-kia eta, pisu duinak zirela ikusirik, hartu egin genuen. Garai hartako 175.000 pezeta ordaindu genuen. Gaintxurizketatik etorri ginen Galo nire koinatua eta biok -Lezon bizi ginen orduan-, egunkarian piso horien iragarkia ikusita. Ikusi, saltzen zituenarekin hitz egin eta berehala erabaki genuen: 'Hi piso honekin eta ni honekin'. Halaxe, etorri ginen Berrobira.

Amelia Morales: Ni lau urterekin etorri nintzen herritik. Amarekin. Alargundu zenean, Donostiara etorri zen izeba batekin, eta sukaldari lanetan jardun zuen bere denboran. Amarekin etorri nintzen, beraz, oso gazterik, baina izebarekin bizi izan nintzen gehiago.

Carmen Malvido: Ni, koinata batekin etorri nintzen Pasaia San Pedrotik. Lehenbizi Tolosara autobusean eta Tolosatik

Berrobira igandetan egoten zen beste autobus batean. Iritsi orduko, esan nion koinatari: 'Ene Jainkoa, goazen berriro San Pedro aldera!'.

Carmen Rodrigo: Ni eta senarra nekazariak ginen. Hiru asto genituen orduan, baina nekazaritzatik bizitzen jarraitzekotan, makinaria erosi beharra genuen, traktoreak eta abar, eta terreno askorik ere ez genuenez, ezezkoa erabaki genuen. Orduan idatzi genion Felixi, eta halaxe, paper fabrikari lortu zioten lana Leandrori. Maletarekin herritik atera zenean, buelta hartu zuen, ez baitzen inoiz herritik atera. Baina etxera sartu baino lehen, atzera jiratu eta bizilagun batekin egin zuen topo. "Nora hoa, Leandro?", galdetu zion bizilagunak, eta senarra zenak erantzun: "Etzekiat, mutil, Donostia aldera hartu edota etxera itzuli!". Bizilagunak, orduan: "Tira, tira, segitzak autobus aldera!". Zirt edo zart hartan erabaki zuen bere etorkizuna. Ordurako ezkonduak ginen eta bi alabak jaiok ziren. Autobusera jaitsi nintzen ni ere agur esatera. Oraindik ere gogoan dut bere agurra, esanez bezala: "Jada ez zaituztet gehiago ikusiko...". Egunero idazten zidan: "Etor zaitez, etor zaitez, bestela itzuli egingo naiz eta". Eta etorri ginen gu ere. Saldu genituen astoak, txerriak, oiloak eta ekarri genituen 50 kilo babarrun, 50 kilo olio... Geneukana, bizitzeko. Soroneako garaje batean jarri ginen bizitzen, hezetasun handia zegoen, euria egiten zenean errekatxoak jaisten ziren hormetatik. "Goazen hemendik herrira", esaten zidan halakoetan senarrak, izan ere terrenoa mantentzen genuen herrian. Azkenean, ordea, Berrobin geratu ginen.

Felix Rodrigo: Lehen herrietatik etortzen zenean jendea, autobusak kaxa handiekin beteta iristen ziren: urdaiazpikoa, babarruna, txorizoa... etxeko genero guztia ekartzen zuten.

Enrique Martin: Zure senarra arratsaldeko 15:00etan iritsi zen Berrobira. Taxi batek ekarri zuen. Boni zegoen errepi-dean eta hari galdetu zion ea bazekien non bizi zineten zuek, Felix eta Amelia.

Carmen Rodrigo: Bai, taxiak ekarri zuen bigarren aldiz. Izan ere, taxiaren geltokira joan eta Berrobiko seinak eman zizkion taxistari, baina taxistak zer eta Ibarraino eraman zuen. Han hasi bila, bere maletatxoarekin, galdezka bati eta besteari, konturatu zen arte hura ez zela Berrobi. Berrito ere taxiaren geltokira joan eta hantxe zegoen taxista. "Baina nora eraman nauk?", galdetu omen zion. Eta bigarren txanda hartan, bai, Berrobiraino ekarri zuen. Zenbat kostatu zitzaion eta guzti kontatzen zuen berak. Ez zegoen ohituta herritik ateratzen. Gero ni etorri nintzen, bi alabekin eta aitaginarebarekin. Itsu zegoen aitaginarreba, gaixoa.

Enrique Martin: Pepi eta biok elkarrekin etorri ginen. Haurdun zegoen ordurako. Nire lehen andregaija izan zen. Soldaduskara joaterako ezkondu ginen eta eduki genuen lehen umea. Emazteak 29 urte betetzera 8 seme-alaba genituen. Abentura erabatekoa izan zen hura. Ia-ia dena utzi eta berriro Sevillara bueltatzekotan ere izan nintzen noiz edo noiz. Ezin nuen eguraldia jasan. Emaztearengatik eta seme-alabengatik geratu nintzen.

Carmen Malvido: Lehen orain baino seme-alaba gehiago izaten ziren. 29 urterekin orain 8 seme alaba eduki? Ezta errotuta ere! Guk 7 izan ditugu; Roperok 7; Bonik 5 gutxienez bai; Galok 6... Eta orduan bizi ginen etxea oraingo gure sukaldea baino txikiagoa zen. Ez komun, ez argi, ez ezer.

HEMENGO JENDEAREN HARRERA

Carmen Malvido: Hemengo jendeak, oro har, nahikoa ondo hartu gintuen gu. Manolo gure semeak, hala ere, pasa zituen bereak. Circo de los Muchachos-etik etorri zenean lantza fabrika batean hasi zen lanean, Tolosan, trenbidearen beste aldean. Bateren batzuk esaten zioten "koreano", "zertara zatozte hona, koreanoak?". Behin, motor txiki batean lanetik zetorrela, Errotako horretan errekarra bota ere egin nahi izan zuten. Gauzak garbi esan behar izan genizkien gazte haiei eta familiei. Amorrurik gehiago hartu zioten hasieran, baina azkenean gauzak etorri ziren bere onera. Geroztik ez dugu, ez guk, ez gure seme-alabek aparteko arazorik izan. Josetxok euskaraz ere ikasi zuen, Gorritiko zubiaren beste aldean zegoen aroztegi bateko nagusiarekin.

Enrique Martin: Ni etortzerako erdaldun dezente zeuden Berrobin. Boni zegoen, Pablo zegoen, Eladio zegoen, Ropero... 18-19 familia erdaldun izan ginen bolada batean, eta, orduan, ez ziren hainbeste sartzen gurekin.

Felix Rodrigo: Bai-bai, gogoan dut Juanitonen 17-18 lagun nola aritzen ginen karta jokoa. Mordoska ginen. Gainerakotan, nik neronek zorte handia izan dut. Lanean-eta, lagunik handienak euskaldunak izan ditut.

Manuel Rodas: Nik ere bai, euskaldun bat izan nuen lagun handiena itsasoan. Jainkoak eduki beza bere denboran Iorrian. Mungiakoa zen, Pisben, berak erakutsi zidan arraina gatzatzen. "Manuel, lan egiten duena bista da eh!", esaten zidan behin eta berriro. Sotoan egon nendin nahi izaten zuen, beti berarekin, arraina gatzatzen. Ez da langintza erraza, urteak behar dira ondo ikasteko. Berak erakutsi zidan niri. Gizon zoragarria zen.

Carmen Malvido: Guretzat oso inportantea izan zen pixkanaka kanpoko jende gehiago etortzea. Ni etorri nintzenean, zerua eta etxea, ez neukan besterik, ez nuen inortxo ezagutzen.

Enrique Martin: Mari Carmen alaba zaharrenak ez zuen euskaraz batere ikasi. Hura Sebasekin hasi baitzen. Beste seme-alabak jada Bitorrekin hasi ziren, eta haiek bai denek ikasi dute euskaraz.

Amelia Morales: Guri gertatu zaigu, hona etorri eta ez genuela euskaraz ikasi. Seme-alabek, ordea, eskolan-eta, bai, ikasi dute, eta, ondoren, bilobek ere bai. Eta orain, bilobekin hitz egin ahal izateko euskaraz jakitea nahiko genuke, baina ezin. Horixe gertatu zaigu.

Carmen Rodrigo: Honez gero, ordea, ez dugu ikasiko. Hitz bakan batzuk besterik ez. Amorrurik ez dut nik inoiz sentitu, besteak euskaraz aritu eta nik ezin nuelako elkarrizketan sartu. Errespetatu egin dut hori, ulertzen dut. Alabak ere euskaldunekin ibili izan dira batez ere, baina haiekin gaztele-raz hitz egiten zuten.

Enrique Martin: Hala ere, Berrobiko euskaldunek ere gaztelera gehiago hitz egiten dute orain. Lehen, gu etorri gine-
nean, ez zuten hainbeste hitz egiten.

Felix Rodrigo: Lehen aipatzen genuen lagun koadrila hori txikiteoan eta karta jokoa asko ibili izan gara. Horretan nota bikainak atera izan ditugu. Zenbat ordu Juanitonen, Urkolan edo Bodegan!! Bizio handia genuen. Etorri berritan, Elduaingo paper fabrika zazpi urtetatik seitan goizeko 06:00etatik arratsaldeko 18:00ak arte aritu nintzen lanean, 12 ordu. Denboraldi osoak aritu nintzen astean 80 ordu sartuz. Etxea ordaindu beharra zegoen. 96 pezeta zen orduan oinarritzko soldata. Hilean 3.000 pezeta garbi. Orduak sartuz gero, berriz, 4.500-5.000 pezeta.

Carmen Rodrigo: Leandro gaixoak ere esan izan zuen, ia hiru hilabete oso eman zituela lantokitik atera gabe, lotarako bakarrik. Lana orduan denek egiten zuten asko, bai euskaldunek eta bai erdaldunek. Beharra handiagoa zen. Gertatzen zena zen euskaldunek baserria zutela askok, eta lantokiko lanaren ondoren baserrikoa egin behar izaten zutela. Ondorioz, haiei ez zitzaizen interesatzen orduak sartzen ibiltzea.

Enrique Martin: Niri ere, Elduaingo fabrika sartzekotan, 12 ordu lan egiteko baldintza jarri zidaten. Egun osoa kamioiak zamatzen eta deskargatzen.

Felix Rodrigo: Bueno, ba arratsaldeko 18:00etan lantokitik atera, Juanitonen sartu eta igual gaueko 23:00ak arte egoten ginen. Etxera iritsi afaltzeko gogorik gabe, emaztea haserre igual... Eta hurrengo goizean 05:00etan gora. Hala, eguna joan eta eguna etorri. Gazteak ginen artean.

Enrique Martin: Urkolan ni jokotuta nago guardia zibilekin. Bai, mosketoiak pertxan zintzilik utzi eta haiek ere jokoa sartzen ziren. Beste behin, Galo eta biok Don Iñaki apaizarekin ere jokatu genuen, eta Galok, karta txarrak nonbait, eta "kauendio, ze kartak eman dizkidak!", bota zidan, apaizaren aurrean. Gizon on hura zen Don Iñaki.

KANPOTARRAK HAN ETA HEMEN

Amelia Morales: Bai, gure herriarekin harremana mantentzen dugu. Etxea daukagu han, eta orain, ia 3-4 hilabete pasatzen ditugu bertan. Gauza politak daude han. La Ciudad Encantada, Segrobidako aztarnak...

Enrique Martin: Gu animaliak bezala hazi ginen han, kobazu-loetan. Jendeak ez du sinisten, baina hala da. Bitxo bat bezala zaildu nintzen ni, eta ez dut lotsarik esateko.

Amelia Morales: Badakizue zer gertatzen zaigun guri? Han, herrian gaudenean, harategira edo edonora joan, eta hasten dira: "hara, etorri dira kanpotarrak, etorri dira euskaldunak...". "Gu hemengoak gara ordea!", erantzuten diegu guk, urteak daramatzagu urtero hona etortzen, baina...

Enrique Martin: Ni andaluziarra naiz, beti izango naiz, baina jada terreno hau gehiago gustatzen zait hangoa baino. Ama bizi zela hara oporretan joaten nintzenean, aspertu egiten nintzen, ez nuen inor ezagutzen...

Felix Rodrigo: Arazotxo bat dugu, "arazotxo" kakotx artean: Jada ez gara ez hangoak ez hemengoak. Kanpotarrak gara bai han eta bai hemen. Eta gu, aldiz, ez gara kanpotar sentitzen ez han, eta ez Berrobin. Batzuek txantxa moduan hartzen dute, eta besteak serio. Semeak, berriz, haiek berrobitarra dira.

ZARREN
ELKARTEA



CLVB DE
JYBILADOS

SOLASTOKI

Eleitz-Gain etxea · 20493 Berrobi

Olain okindegia



Jose M^a Goikoetxea, 31 · 20493 Berrobi

☎ 630 579 549



Ibai-Ondo etxea, 2 / esk. · 20493 Berrobi

☎ 943 683 112 / 619 405 260 · Faxe: 943 683 112



Bide - Ona

Gastronomi Elkartea

Jose M^a Goikoetxea / Casa Iriarte, 10 · Berrobi

Teileriko baratza berria



Badira urte batzuk Teileri baserrikoek nekazaritza ekologikoari ekin ziotela. Orain baratza berri eta berezi bat jarri dute, Zuatzuko lursailean, bordaren ondoan. Bertan, landareen orde, eguzkiaren energia erabiliaz, argindarra sortzen duten plaka edo panel fotovoltaikoak daude.

"Elektrizitate sareari konektatutako eguzki panel fotovoltaikoen instalazioa" du izen ofiziala. Duela bi urte hasi omen ziren ideia hausnartzen. "Gure ezagun bat horrelako plakak jartzen aritzen da eta berak informatu gintuen" dio Maria Eugeni. "Alemanian, Babiera aldean ere izan ginen, instalazio batzuk ikusten, han energia mota hau oso landuta baitago".

Lehen aipatutako ezagun horren enpresak, "Argi ta Garbi" izenekoak, instalatu du ekipoa. Iazko udan hasi eta joan den maiatzean bukatu zuten.

2 "instalazio" izenekoak jarri dituzte, bakoitzak 28 plaka ditu, bi ilaratan kokatuta (guztira 56) eta 5KW/orduko potentzia. Panel edo plaka hauek Austriatik ekarriak dira eta 1x1,5 m neurtzen dute, beraz, instalazio bakoitzak, 40m² inguruko azalera hartzen du.

Honelako "instalazio" bat jartzeko, lekuaz gain, dirua ere, dexente behar da, 30.000 euroko aurrekontua baitu bakoitzak. Baina dirulaguntzak ere badaude. Ferminen esanetan: "Gobernuak energi mota hau bultzatu nahi du, garbia delako eta agortuko ez dena gainera. Euskadin, Gobernuaren dirulaguntzak, EVE erakundeak gestio-natzen ditu. Gure kasuan, aurrekontuaren %25 eman digute gutxi gora-behera".

Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak ere ematen ditu laguntzak, eta baserrietan, gero eta gehiago jartzen ari dira ekipoa hauek, errenta osagarri bat bezala.

Instalazio lanak bukatu eta gero, Iberdrola eta EVEren onespena jaso eta Elektrizitate Ekoizleen Erregistroan inskribatu behar izaten da.

Honen ondoren elektrizitate sareari konektatu eta martxan jartzen da. Dagoeneko, tramite guzti hauek bete eta lanean ari dira Teileriko panelak.

Etekinari dagokionez, "baratza" honek, urtean 12.000 KW/orduko inguru ekoiztuko ditu (instalazioko 6.000 KW/orduko) eta produkzio guztia Iberdrolak erosiko du, legez behartuta dago eta. Prezioa berriz, Madrilgo Gobernuak ezartzen du. Oraingoan, 44 zentimo (73 peseta) ordaintzen dute KW/orduko bakoitzeko. Era honetara, inbertsioa amortizatzeko 10 urte behar omen dira.

Eta bukatzeko, nahiz eta askok pentsatu, horrelako instalazioak, eguraldi beroa egiten duen lekutan, errentagarriagoak izango direla, ez omen da horrela. Energia ekoizteko eguzkiaren argia erabiltzen dute, ez beroa, eta plakak berak, hotzarekin hobeto funtzionatzen omen dute. Gainera, Alemanian errentagarriak badira, zergatik ez hemen?

Noizkoa izango ote da?



Aspaldikoa bai behintzat! Argazkigintza bera ere hasieratan zen, landu gabe artean. Donostiako "Koldo Mitxelena" Kultur Etxeko liburu batetik hartua da argazki hau. Etxe gutxi, baserri gehiago, bidean aurrera idi pareta gurdiarekin eta arropa txuriak zintzilik zenbait lekutan.

Juanitone, Ezkerrane, Antzi Txiki, Haitzaldeberri, Azpi-koetxe (Lehen, Riojanene), Sorone Txiki (lehen, Attanene), Alontso (izkin zatitxoa), Agotzane, Aldabasko, Ertotxe, Eliza, Arbide eta oraindik zutik dagoen ondoko intxaurrondoa, Argindegi, Arrostegegi, Bengoetxe, Berrobizar, Birautz, Upelategi, Munttegi, Iturburu, Ermitatxoa eta Lapatza Jauregiko harresi itxia. Besterik ikusten al duzue?

Berrobiko argazki zahar honen puzzleari gaurko puzzle osoa erantsiko bagenio, zati berriak ondo kokatzen lanak izango genituzke. Baina zatiak kokatuta gero, modernizazioa gure herrian ederki murgiltzen doala baieztatuko dugu.

1920-23 inguruko eskola argazkia



Ezker eskuin, behean: Gabirineko Petra, -¿?????- , Arkaitzeko Joxpantoni? , -¿?????- , Seskea Berriko Anttonita, Berrobizarko Julita, Tontolako Julita, Estankoko Elena, Elizaldeko Karmen eta Justina.

Bigarren ilaran: Beotibarko Bixenta, Xoteroren iloba, Alontsoko Frantziska, Zentraleko Bernarda eta Mandli, Elizaldeko Mariluz, Errota-Berriko Emilia, Antziko Dominica, Loiolako bixkitako bat.

Hirugarren ilaran: Oritako Martxelina, Zentraleko Maria?, Arkoako Martina?, Seskea-Berriko Maria, Antziko Anjelita, -¿?????- , Loiolako beste bixkia, Anbuko Dolores.

Goian: Beotibarko Dolores, Txurdinagako Joxepa, Arkoako Juana, Urangako Pilar, Elizaldeko Kontsesiona, Berroetako Feliziana, Antziko Maria, Usarreko Maria Pilar, Urangako Dolorines.

6 tik 14 urte bitarteko neska sail ederra, beste hainbeste mutil izango ziren, denak ikasgela berean, udaletxe azpian, eta maistra bakar bat guztientzat. Ez zen makala izango ez. Estresarik izaten ote zuen?

Gaztetako lagunartea



Goran, ezker eskubi:

Errota-Berriko Juan M. Erauskin, Txurdinagako Inazio Larrarte, Tontola Beheko Juanito Garmendia, Irungo Florentino Ezkamendi, Antzi Txikiko Julian Txurio, Tontola Beheko Txomin Garmendia.

Beheran:

Kamineroneko Ramon Tolosa, Errotako Andoni Ayerza, Mineroneko Felipe Ibáñez, Errotako Jose M. Ayerza.

Argazkia, 1953 ko San Agustinetan egina da, lagunarteko bazkari baten ostean seguru asko, Joanitoneko tabernaren parean. Zaila da zehaztea, denboraren poderioz,

oroitzapenak atzendu egiten baitira. Esan ohi den bezala, urteak ez dira alferrik joan, eta haiekin batera, Joanitoneko taberna, artasoroak, Muñagorrine eta baita "munduko frontoirik luzeena" ere.

Lagunarteko kide batzuk ere, zaharregi baino lehen falta-tu dira: Juanito Garmendia, 1993ko arriaren 22 an hil zen, Andoni Ayerza, 2003 ko maiatzaren 23 an eta azkenekoa, Julian Txurio, aurten, uztailearen 6an hil zen. Heranin bizi zen aspalditxo honetan, baina ezagutu zutenek, oraindik gogoan dituzte, bere sentiberatasuna eta umore ona.

Iturriza janaridenda

Jose M^a Goikoetxea, 24 · Berrobi

☎ 943 683 169



☎ 943 672 388 · Fax: 943 675 665

Poligono Industrial Beotibar, s/n
20491 Belauntza

Ekintza Guraso Elkatea

Tolosalde

Tolosaldeko autobus linea

- Ibilaldiak
- Estaiak
- Agurafariak
- Ikastetxeak
- Ikastetxeak
- Lineaz kanpoko zerbitzua

Donostia etorbidea, 9 · ☎ / Fax: 943 650 621 · 20400 Tolosa



AMBY OILASKOAK S.L.

Eutela auzoa, 27 · 20493 Berrobi

☎ 943 683 421

Ion Alduntzin, berrobitar bat Bartzelonan

Urte bete ongi pasatxo da dagoeneko Ion Alduntzin herritarrak maletak hartu eta Bartzelonako bidea hartu zuela, 2006ko Urtarrilean hain zuzen ere egin zuen joaneko bidaia. Geroztik egin ditu bisita labur zenbait herrira baino berriro segituan bueltatu beharrean aurkitzen zen lanak ez baitzion nahi adinako tarterik ematen.

Aurtengo Abuztuan ordea behin behineko herrira bueltatzen da Bartzelonako bere esperientzia momentuz amaitutzat emanik. Hau dela eta bere esperientziari buruz eta hara joatearen inguruko kontuei buruz aritu zaigu gure eskaerei erantzunez.

Kontatzen digunez zerbait berria probatzeko gogoak bulztatu zuen Bartzelonara joatera, gainera hiriarri buruz zituen erreferentziak oso onak ziren eta bertan zenbait ezaugun izateak erabakia hartzen lagundu egin zion. Lehengusu baten bidez aurkitu zuen lana Jatetxe batean zerbitzari eta bertan aritu da aurtengo Aste Santuak arte. Azken hilabeteotan ordea Baserri izeneko tabernan aritu da lanean. Taberna hau giro euskalduna duen Bartzelonako taberna bakarra da eta lonek aipatzen du bertan egonda Hernaniko edozein tabernatan egotearen sentsazioa sentitzen duela. Taberna honen jabeak Billabonakoak omen dira izatez nahiz eta dagoeneko urte batzuk igaro Hirira iritsi zirenetik. Tabernaren bitxikeri moduan aipatu dezakegu web orria ireki berri dutela, bertan foro eta antzekoak jarri dituzte bertako bezeroekin kontaktuan egon daitekeelarik. www.baserri.org da helbidea.

Hiriarri buruz galdetzean, gauzarik aipagarrienetako bat bertan bizitzearen lasaitasuna aipatzen du. Bakoitzak bere zereginak eta bizi erritmoa ditu eta ez dira besteen gauzetan sartzen. Gainera hiri kosmopolita izanik era guztietako jendea eta nazionalitate ugariak aurki ditzakezu. Bere ustez askatasun handiagoa sentitzen da hirian bizitzean.

Euskaldun izateari buruzko gaia ateratzeko puntu honek onurak besterik ez dizkiola ekarri deritzo lonek, bere ustez Euskaldun izatean bereganako tratua hobea izan dela pentsatzen du. Gainera, irudipen hau ez du bertako kataluniarrei bakarrik zabalitzen bere ustez Espainiako beste probintzietatik joandako Bartzelonako biztanleen bereganako jarrera ere primerakoa izan da. Gainera, hiri handia izanik eta biztanleria hain leku ezberdinetatik hurbildutakoa, nazionalismo katalandarra ez da hain sutsua bertan, loneri iruditzen zaio probintzian haundiagoa izan daitekeela kataluniar izatearen harrotasuna. Puntu honetan Bartzelona eta Kataluniar Probintzia Donosti eta Gipuzkoar probintziarekin konparatzen ditu egokiro.



Bertan egon den bitartean herriko zenbait lagun joan zaizkio gainera bisitan eta hau bereziki eskertu du. Bera bere aldetik saiatu omen da joandakoei Hiriko lekuri aipagarrienak erakusten. Lagunak aipatzen ditu lonek hiriarri buruz gehien faltan botatakoa galdetzean eta haiekin batera parrandak.

Bartzelonan egon den tarte honetan eman dio ordea paradirik bertan koadrilatxo sortzeko. Inguru honetatik joandakoak elkartzeko omen dira ia egunero aurrez aipatutako Baserri tabernan zerbait hartzeko eta beraien eguneko kontuak elkarri kontatzeko. Kontu hauek askotan parrandan bukatzen omen dute eta guztiak elkarrekin ibiltzen omen dira honetan ere. Parrandaz aparte kirolerako ere elkartzeko omen dira eta tarteka frontoira ere joaten dira elkarrekin. Bartzelonako rambletan dute jokalekua.

Orain dela gutxi jokatu zen Euskadi- Katalunia futbol partida ikusteko aukera ere izan zuten. Partidu hau lehenik San Mamesen jokatu zen eta gero Nou Campen errepikapena izan zuten bi taldeek. Bigarren honetara joan ziren Ion eta lagunak eta bizi izan zuten giroa izugarria izan omen zen.

Eguneroko bizitzarekin jarraituaz apartamentu batean egon zen bizitzen lehenik Bartzelonako bi mutilekin eta ge-



rora aldatu egin zuen bizilekua Atarrabiako mutil batekin eta Bilboko neska batekin bizitzera igaroaz. Azken hauekin giro oso ona izan du eta pisukide izatetik lagun izatera pasatu dira.

Kataluniar jendeak izaera irekiagoa erakutsi dio Ioni normalean guk Euskaldunok erakusten duguna baino. Gu baino irekiagoak omen dira, bereziki jende berriarekiko hartu emanetan. Berari pertsonalki ere balio izan dio esperientziak bere buruko ikuspegiak zabaltzeko. Oinarrian bere barnean berdina izaten jarraitzen duela deritzo baino bai onartzen du gauza gehiago ikusteak bere burua irekitzen lagundu diola.

Bertako lanari buruz berak ezagutu duen munduan, Ostalaritzan, lan asko dagoela deritzo baino gaizki ordaindua.

Soldatak hemen baino txikixeagoak omen dira eta salneurriak berriz altuxeagoak. Gainera, hemengo tabernetan gertatzen denaren pareko, gero eta kanpotar gehiago dago lanean ostalaritza munduan.

Bestelako bitxikeri bezala Mieltxo Saralegi harri-jasotzaile Leitzarra izan zutela bisitan bera orain lanean ari den tabernan kontatzen du. Bertan gainera

Mieltxok duen harri haundien errekorreko pisu bereko harri bat omen dute bere omenez eta harria bizkarrera-tzeko saialdiaren bila ibili baziren ere ez omen zuten beraien helburua betetzerik izan.

Aurtengo abuztuan berriz badator Ion bueltan herrira eta oraingoan hasera batean behintzat geratzekotan. Bartzelonako esperientzia oso positibotzat jotzen du baina baita bukatutzat ere. Hasera batean hemen geratu eta lanen bat bilatzeko asmoa du, baino ez du erabat baztertzen etorkizunean esperientzia errepikatzea. Horrela gertatu ezkerordea leku ezberdin batetara mugitu nahiko omen luke, Bartzelonak eman beharrekoa eman diola deritzo eta esperientzia berriak bilatzea luke gogoko. Bitartean, izango du lagun eta herritarrekin izateko paradarik herrian.



M A Y E N S A

MANDRILAK ESPIRALEAN

☎ 943 683 051 / 943 683 231 · Faxe: 943 683 345

20493 Berrobi

mayensa@mayensa.com

www.mayensa.com

TOKIKO AGENDA 21.

SAN LORENZO UDALTALDE 21



ZER DA TOKIKO AGENDA 21?

Udalak, bere egunerokotasunean, hainbat erabaki hartu behar izaten du herriaren beharrei erantzuteko, erabaki zailak, zenbait kasutan guztien gogoko ez direnak.

Tokiko Agenda 21ak, herritarren bizi kalitatea hobetzea helburu izanik, herriaren oraina eta geroa jasoko dituen herri plana eraikitzen lagundu nahi dio udalari, arlo guztiak kontutan hartuta. Nola? hiru pausu jarraituz:

1. **Ingurumen, Gizarte eta Ekonomia arloak jasotzen dituen Diagnostiko bat egiten da** eta herriaren egungo egoera aztertzen da.
2. Aurrera begira nolako herria nahi dugun pentsatuz, Agenda 21ren ezaugarria den herritarren partehartzearekin, **helburu batzuk finkatzen dira.**
3. Finkatutako helburu horietara iristeko egin beharrekoak zehaztuz, Ekintza Planak urtero berrikusi beharko dira, eta horretarako, aipatu herritarren zeresanak garrantzia handia izango du.

SAN LORENZO UDALTALDE 21. NONDIK NORAKOA



2.006ko otsailaren 13an, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain eta Ibarra udalerriek SAN LORENZO UDALTALDE 21 eratzeko lankidetzak hitzarmena sinatu zuten Iñobe (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen saila) eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Ordea, prozesua ez zen iraila arte martxan jarri.

SAN LORENZO UDALTALDE 21 aipatutako udalerriek osatzen duten lan taldea da eta Tokiko Agenda 21a ezartzea dute helburu. Tolosaldeko Mankomunitateak koordinatzen du, bertako arduraduna prozesu honetan Ainhoa Alonso delarik.

Aipatu bailara honetan, Agenda 21ri ekin zitzaionetik, da-goeneko hainbat pauso gauzatu dira:

2006ko abenduan, San Lorenzo 21ko koordinatzailea eta UTE Ondoan-Haizea aholkularitza, arlo guztiak kontutan hartuz, udalerrri bakoitzaren egungo egoera/errealitatea islatzen duen diagnostikorako beharrezko diren datuak biltzen hasi ziren. 2007ko apirila bitartean aritu dira datu bilketa honekin, iturri ezberdinetatik informazioa jasoz: udala, udalaz gaindiko erakundeak,... datu objektiboez gain, diagnostikoa osatu ahal izateko, herritarren iritzi edo ekarpenak ere jaso nahi izan direnez, hainbat elkarrizketa burutu dira bost udalerrietan; elkarrizketa haueetatik jasotako emaitzak diagnostikoan txertatu dira.

Datu guzti hauekin diagnostikoaren lehen zirriborroa osatu du UTE Ondoan-Haizea aholkularitzak.

Orain, prozesuaren bigarren fasea landuko da: etorkizunera begira nolako herria nahi dugun pentsatuz helburu batzuk finkatzea, guztion artean ekintza plan bat adosteko aukera izanik. Horretarako, bi herri batzar antolatzea aurreikusten da:

Lehenengoa jada egin da, ekainaren 29an izan zen arratsaldeko 20tan Etxolan. 16 bat pertsonak parte hartu zuten eta bertan, Haizea aholkularitzak Berrobiko diagnostikoaren laburpena aurkezteaz gain, partehartzaileek diagnostikoaren hitzarmena aurkezteaz gain, ekarpenak egiteko aukera izan zuten. Bi ordu inguruko bileraren ondoren, udalak pintxoak jarri eta tertulian jarraitzeko aukera eduki zuten etorri zirenek.

Aipatu bileran ateratako emaitzak ondorengoak izan ziren:

ETXEBIZITZA:

Jende asko Berrobitik kanpo bizitzera joan da, etxebizitza gutxi zeudelako edota lantokia herritik urrun zuelako.

Etxe gehiago eraikitzekotan, gazteei zuzendutakoak behar lukete, herriko gazteak bertan geratzeko aukera eduki dezaten eta horrela herri giroa mantentzeko. Hala ere, progresio bat jarraituz eraiki behar lirateke, etxebizitzekin batera, zerbitzuak, aparkalekuak... areagotuz. Gainera, eraikitako etxeek Berrobiko egungo irudierekin bat egin behar lukete.

Beharrezkoa da gasa etxeetara iristea. Horrek arazoak sor ditzake, zenbait lursail zeharkatu beharko dituelako. Kalte eta gastu gutxien sortzen dituen modua aurkitu beharko da gasa herrian sartzeko.

Telebistaren errepikagailuak ez ditu irudiak behar bezala hartzen. Konpondu behar litzateke.

JARDUERA EKONOMIKOAK:

Berrobin ez dago ia lan aukerarik. Desiragarria litzateke herrian lan-tegi gehiago egotea baina ez dago berriak sartzeko tokirik.

Baserria desagertzen ari da pixkanaka, inork ez du bertan lan egin nahi. Izan ere, baserri jarduerak lan handia ematen du eta dirurik ez. Dirulaguntzak eman beharko lituzkete.

Turismo eta ostalaritza sektorearen pisua txikia da herrian. Une honetan ez dago zer eskaini. Herriko bideak txukundu behar lirateke, guztiontzat onuragarria izango litzateke, bai turistentzat eta baita herritarrentzat ere. Esaterako, duela urte batzuk, herritar batek Izaskunera zuzendutako bide baten proposamena luzatu eta GFAtik %55ko dirulaguntza lortu zuen, ordea, garai hartan udaletxean zeuden ordezkariak atzera bota zuten aipatu proposamena. Gisa horretako ekintzak burutu beharko lirateke.

KULTURA, KIROLA ETA AISIA:

Herritarrek kultur ekintzetan parte hartzen dute. Hala ere, beti jende bera da parte hartzen duena; talde gehiagok parte hartzea ondo legoke. Herriko festak antolatzeke ere jende gutxi egoten da eta beti berdinak izaten dira.

Herriko frontoian konponketa batzuk egin beharko lirateke.

MUGIKORTASUNA/ IRISGARRITASUNA:

Batzuen ustez oso beharrezkoa da trafiko arazoak ekiditeko **saihesbidea** egitea. Beste batzuen ustez, berriz, saihesbideak trafiko gehiago besterik ez luke ekarriko. Herrigunetik hainbeste auto pasa ez daitezen, errepidea desbideratzeko asmoa/proiektua dago (trafikoa herrigunetik kanpo pasarazi eta berriro ere egungo errepidearekin lotu).

Kotxearekiko dependentzia handia da. Autobus zerbitzua hobetu eta autoa erabiltzeko oztopo gehiago jarri beharko lituzkete. Langileentzako lantokirako autobusa jarri beharko lukete, garai batean egiten zen bezala. Bestalde, udako autobus zerbitzua motz geratzen da eta hobetu behar lukete.

Aparkalekuak ez dira behar bezala baliatzen. Batzuk oso kargatuak egoten dira eta besteak, berriz, hutsik, herritarrek ez direlako metro gutxi batzuk ibiltzeko prest egoten. Leku guztiak behar diren moduan erabiliz gero, aparkaleku gisa erabiltzeko gune gehiago behar liratekeen ikusiko litzateke.

Udal eraikinak, orokorrean, ez daude ezinduentzat egokituak. Udale-

txea berritu zutenean ez zuten egokitu. Orduan egin behar zituzten egin beharrekoak, orain oso zaila da.

Errepidea oso arriskutsua da eta ez dago oinez eta bizikletaz ibiltzeko egokituak. Errepidea zabaldu eta bidegorri bat egin beharko litzateke.

Kotxe-gidariak ez dituzte abiadura seinaleak errespetatzen. Jarritako abiadura-muga ere gehiegi da, bihurguneak direla eta ez baita ezer ikusten.

INGURUMEN BEKTOREAK:

Ur kontsumoaren inguruko kontzientziazio maila handiagoa da baina oraindik ere ur asko erabiltzen da. Ez zaio ardura hartzen. Udararen zerbitzukoek errekararen rejilak garbitzen dituztenean erreka lehortuta uzten dute askotan. Amuarrainak ezinez ibiltzen dira eta bitartean deposituak gainezka egoten dira.

Udalak nolabait lagundu beharko lituzke energia berriztagarrien inguruko ekimenak. Eskola berrian eguzki-plakak jarri behar lituzkete energia aurrezteko (udalak saiakera egin duen arren, ezezkoa jaso du ikastetxearen aldetik) eta baita eraikin publiko guztietan ere.

Edukiontzia berde, hori eta urdin gutxi dago. Gainera, horien hustutze maiztasuna ez da egokia. Gainezka egiten dute. Astean bitan husten dituzte. Askotan ezin dituzte hustu, inguruan autoak aparkatuta egoten direlako.

Dendetako kartoizko kaxekin arazo handia dago. Kanean pilatzen dira eta molestatu egiten dute. Paperarekin ez dago arazorik, baina kartoiarekin bai. Edukiontzian ez direnez sartzeko, kanpoan uzten dituzte askotan. Euriarekin busti egiten dira eta kalea zikintzen da.

Ontziak askotan ez dira birziklatzera botatzen. Etxebizitza berriak egitean, sukaldeak zaborra banatzeko egokitu beharko lituzkete.

Baserritarrak eta lur zati baten jabe den oro konposta egin dezan bultzatu behar da.

JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA

Pinuak herrigunetik hurbilegi landatzen dira. Debekatu egin beharko lukete hain gertu landatzea.

Une honetan pinuak ez duenez baliorik, jabeek ez dituzte pinudiak zaintzen. Zikin eta sasiz beteta daude eta horrek suteetarako arriskua handitzen du.

Hildako amuarrainak ikusten dira tarteka errekan, uda partean batez ere, emaria jaisten delako. Errekara egiten diren isurketengatik hiltzen dira.

HERRI GIROA, PARTE HARTZEA

Berrobi ez da propio lo herria baina bizitza handiko herria ere ez. Herri lasaia da, lasaiegia batzutan.

Partehartzea ez da inoiz oso handia izan Berrobin. Duela urte batzuk mugimendua egon zen (10 urtetan zehar). Gaztetxea duela 12 urte sortu zen. Orain, beherakada handia eman da. Gazteak ez dira mugitzen, lehengo moduan ez behintzat. Oro har hasierako ilusioa galdu da.

Duela lau urtetik hona giroa asko txartu da. Herritarren artean ez dago giro txarrik. Arazoa udaleko plenoetan eta erabakietan sortzen da. Horrek eragin du giroa txartzea. Herritarrek tratua normala mantentzen dute.

Emaitza hauek kontutan hartuz, datozen hilabeteetan ekintza plana lantzen joango gara, eta lehen zirriborroa prest dagoenean, bigarren herri batzarra antolatuko da: abendua aldera egitea aurreikusten da. Hala ere, alde aurretik, udalak jakinaraziko du batzar hori noiz eta non izango den.



EDALONTZI BERRERABILGARRIAK

Bestalde, prozesuan zehar jarraitu beharreko pausoez gain, hondakinen arloa landu helburuz, eta bidez batez Agenda 21 kontzeptua zabaldu asmoz, **EDALONTZI BERRERABILGARRIAK** ateratu dira:

Hondakinen ekoizpena, egungo gizarteak duen bizimoduari lotuta doa, eta une honetan arazo larria bilakatu da gure herrialdean. Zabortegiak betetzen ari dira pixkanaka, herritarrok uste baino hondakin kopuru gehiago sortzen baitugu.

Gure gizartearen praktikak kontutan hartuz, eta ildo horri jarraiki, Agenda 21tik herriko festa, herri bazkari, ospakizun, etab. etan **edalontzi berrerabilgarriak** erabiltzea bultzatu nahi izan da.

HELBURUA

- Plastikozko hondakin kopurua murriztea
- Birziklapen eta berrerabilpen arlotan sentsibilizatzea, ekintza praktikoak bultzatuz
- Herriko kaleak txukun mantentzea
- Tokiko Agenda 21ekin bat eginez, ingurumenaren alde egitea

SAN LORENZO UDALTALDE 21 osatzen duten udalerritan (Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain eta Ibarra) eragin nahi da, hauetako zenbaitetan jada edalontzi hauek ikusi direlarik:

Berastegin, esaterako, J.A. Muñagorri ikastola eta Guraso Elkar-teak edalontzi hauek erabili dituzte ekainean antolatu berri dituzten jardueratan.

ZER DA TOKIKO AGENDA 21?

Udalak, bere egunerokotasunean, hainbat erabaki hartu behar izaten du herriaren beharrei erantzuteko, erabaki zailak, zenbait kasutan guztien gogoko ez direnak.

Tokiko Agenda 21ak, herritarren bizi kalitatea hobetzea helburu izanik, herriaren oraina eta geroa jasoko dituen herri plana eraikitzen lagundu nahi dio udalari, arlo guztiak kontutan hartuta. Nola? hiru pausu jarraituz:

Ingurumen, Gizarte eta Ekonomia arloak jasotzen dituen Diagnostiko bat egiten da eta herriaren egungo egoera aztertzen da.

Aurrera begira nolako herria nahi dugun pentsatuz, Agenda 21ren ezaugarria den herritarren partehartzearekin, **helburu batzuk finkatzen dira**.

Finkatutako helburu horietara iristeko egin beharrekoak zehaztuz, **Ekintza Plan bat osotzen da**.

Ekintza Planak urtero berrikusi beharko dira, eta horretarako, aipatu herritarren zeresanak garrantzia handia izango du.

Ibarran, Uzturpe ikastola, Alurr Dantza Taldea eta Sendi Ekintza elkarteak ere erabili dituzte edalontzi hauek. Misio Taldeak, esaterako, irailaren hirugarren astean antolatuko duen piper egunerako eskatu ditu edalontzi hauek.

Elduainen kasuan, berriz, irailaren hasieran ospatzen dituzten herriko festatan erabiltzea aurreikusten dute.

Informazio gehiago 943673824 telefonora deituz edota sanlorenzo21@euskalnet.net helbide elektronikora idatziz lor dezakezu. Gainontzean, Ainhoa, astearte goizetan egoten da Berrobiko udaletxean.

elduain

taberna-jatetxea

☎ 943 683 327 · Elduain hirigunea, 1 · Elduain

“Mendiminez” liburua kaleratu du Ramon Olasagastik

Mendirako grinaz bizi izan ziren 22 mendizaleren biografia jasotzen duen liburua kaleratu du Ramon Olasagastik. Orain urte eta erdi, Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako Tene Mujika Kazetaritza bekari esker azken urteotan mendian hildako hogeita bi euskal mendizaleen bizitzaren zirrara eta bizipoza bildu ditu liburuan. Felix Iñurrategi, Manu Badiola, Miriam Garcia, Atxo Apellaniz, Jose Luis Zuloaga “Zulu”, Xabier Ansa eta beste hainbat alpinista eta eskalazaileren oroimena jartzen digu begien eta bihotzaren aurrean egileak. Berak dioenez: “Bakoitzaren istripua baino, bere aurreko ibilbidea azaldu nahi izan dut liburuan. Mendiak arnasa ematen zielako, mendiminak sendotu eta sendatzen zituelako. Beraiei mendia kenduz gero, bizirik egongo ziren beharbada, baina ez ziren beraiek izango”.



Eskola berria inauguratu dute

Pasa den urtarrilaren 19an inauguratu zuten Berrobiko eskola berria. Ekitaldian ziren herritarrik gaztetxoek, eta baita helduenak ere, inork ez baitzuen une garrantzitsu hura galdu nahi izan. Bertsoak bota zituzten lehenik haur zaharrenek eta ondoren agurra dantzatu. Agurne Renobales eskolako zuzendariak hartu zuen hitza jarraian eta «itxarroteak merezi» izan duela adierazi zuen. Ondoren, eskerrak ematearekin bat, Jon Jauregi Berrobiko alkateari pasa zion hitza. Hala azpimarratu zuen alkateak: «Herri txikiak bizirik jarraitzeko eskola txikiak bultzatu behar dira, hemen zimenduak jarri ditugu eta espero dugu bere fruituak ematea». Ondoren, Pedro Otxoa Hezkuntza sailburuak eskolako kalitatearen harira «eskola herrian txertaturik» dagoela eta «egunerokotasunaren zati» dela adierazi zuen, baita «hurbileko eta banakako heziketa eskaintzen» dela ere. Inaugurazio ekitaldian ohi den moduan zinta moztu ondoren, eskola barrutik ezagutzeko parada izan zuten bertaraturikoek. Guztira bi urtetik hamabi urte bitarteko 45 ikasle biltzen ditu eskola berriak. Horiekin batera zazpi irakasle aritzen dira eguneroko lanetan. Datorren ikasturtetik aurrera haurtzaindegi zerbitzua jarriko da martxan.

Eskola ibiltariarekin Almeriara

Gure eskolako L.H.6. mailako neska-mutikoen (Pere Arratibelek, Lesmes Belaunzarane, Maddi Dorronsorok, Mirari Jauregik, Jon Jauregik eta Arantzazu Rodasek) izan duten pagotxa ez da nolana hiko: Ana irakaslearekin batera Lizartzako eskolakoekin 15eko taldea osatu eta Andaluziara joan dira, Almeriara hain zuzen ere. Eskola ibiltaria ekimenaren bidez egin dute txango. Almerian, berriz, Leongo eta Madrilgo taldeekin bildu ziren astebete eder bat igarotzeko. Bidaia ez zen makala izan: maiatzaren 22an Berrobetik Bilbora autobusez, eta han hegazkina hartu eta Madrilera. Eta Madrilatik beste hegaldi bat Almeriara. “Carmen de Burgos”

izeneko erresidentzian lo egin zuten Almeriako egonaldian eta hara eta hona mugituz ibili dira. Paraje haietan ikusi, bisitatu eta gozatu dituzten lekuak ez dira izan gutxi: El Ejidoko negutegiak, Millareseko aztarnak, Granadako Alhambra, Granadako Zientziaren Parkea, Almeriako Alcazaba, Mini Hollywood, Tabernas herrian, Gatako lurmuturra, Sorbas, Mojacar, Nijar herriak... harremanak egin, jendea ezagutu, gaztelaniaz hitz egin, txoko eder eta desberdinak ikusi... zer ez ote zuten egin astebetean! Ahaztu ezinezko astea igaro zuten gaztetxo hauek Berrobiko etxetik urrun.



Berrobotarrak Futuroscopen eta Parisen ETBko lehiaketa irabazita



Telebistako "Ordu txikitan" programako "casting"-a egin zuten eskoletan, haur bizi, kameren aurrean lotsik gabeak... behar zituzten eta. Ondoren, eskolak telefonoak emanda gurasoei deitzen zieten lehiaketan parte hartu nahi zuten galdetzeko. Batzuk ezezkoa emango zuten baina Berrobin bi haur izan ziren aukeratuak eta biak joan ziren programara (telebista saiora) gurasoekin. Alde batetik Aitor Erauskin eta bere gurasoak Luis Javier eta Arantxa. Amak ederki marraztu zuen eta aita- semeek baita asmatu ere! Eta gozogojo jarri zion aurpegia Aitorrek Luis Javierri, merengez. Programa honetako lehen irabazleak izan ziren. Izadi Zubiria eta gurasoak Iñaki eta Malu ere ez ziren atzera geratu, Malu ere Arantxaren pare egon zen baita aita- semeek ere, eta bigarren frogan Izadik gozatu zuen Iñaki. Maluk dioenez esperientzia atsegina, harrera beroa eta haurrentzat dibertigarria izan zen telebistako saioa. Eta biak ala biak irabazle, Futuroscopera bidaia familia osoarentzat, bi egunetako ostatua: loa, pentsio erdia eta bertako sarrerak sari. Erauskin Mendizabal familia apirilaren bukaeran joan zen. Zubiriabarbia familia, aldiz, uztaileko lehen astean. AHT-an (Abiadura Haundiko Trena) Hendaiatik Poitiers hirira joan ziren, bertan baitago Futuroscope famatu hori.



"Futuroscopen ondo ibili ginen, eguraldi oso ona, gaueko su eta uraren emanaldia asko gustatu zitzaigun" dio Arantxak. "Emanaldiak oso politak eta interesgarriak izan ziren, denon gustokoak" dio Maluk. Bidaia aprobetxatuz bi familiak Parisera joan ziren. Bertan Eiffel dorrea, Sena ibaian txalupa turistikoan ("bateau-mouche" du izena) itzuli bat eman, monumentu nagusiak ikusi, Mont Martre auzoa bisitatu... Erauskindarrak autobusez "tour", itzuli bat Pariseko eraikin eta toki ezagunak ikusiz: Moulin Rouge, Champes Elises... Louvre museoan ere sartu atera bat egin zuten Da Vinciren Gioconda ikusiz... "Hau al da Anakonda famosua?" esan omen zuen Aitorrek. Askok gustatu zitzaizen Auzo Latinoa, tabernaz, jatetxez beteak eta giro ezin atsegina. Parisen oso gustora ibili ziren, garestia izan arren. Maluk dioenez "faltan somatu genuen haurrek jolasteko hemen duten askatasuna, kaleak formal-formal ibiltzeko lekuak ziren". Ondo ibiltzeak poza du berarekin, baina itzulerak bukaerak sortzen duen penatxoa dakar. Berrobiko bi familiak, ondo ibili ziren seinale.



Maria Eugenia Agirretxek beste sari bat jaso du

Azken urte hauetan, sari ugari jaso du Mari Eugenia Agirretxek, bere barazki eta loreekin, hainbat azokatan. Azkenekoa, aurtengo Tolosako San Joanetako Azoka Berezia. Lehenengo Saria eman diote, Postu Ederrenarengatik. Argazkian ageri denez, ederra bai postua, eta bai mahaiko generoa! Zorionak!

San Isidro eguna

Urteroko usadioari jarraituz, San Isidro egunarekin Udalak antolatuta eta gonbidatuta baserritarrek badute aukera bere eguna ospatzeko, eguneroko lan gogorra gau batez bederen arintzeko. 14 baserritar bildu ziren afaltzera, gutxi edo asko diren ez dakigu edo diren guztiak hor zeuden. Ea datorren urtean gehiago diren!



V. Literatur lehiaketa

Aurten ere Udak Liburutegiak antolatuta Bosgarren Literatur Lehiaketa izan dugu, herrian ikasi edo bizi diren haur eta gazteei zuzendua. Aurten 18 parte-hartzaile izan ditu.

1. kategorian (6-8 urte) bi lan aurkeztu dituzte. Irabazlea Beñat Goenaga izan zen "Aspertuta aurkitzen zen liburua" lanarekin.
2. kategorian (9-11 urte) 14 lan aurkeztu zituzten. Horietatik Maddi Dorronsorok jaso zuen lehen saria "Anne eta Sabana" lanarekin. Kategori honetan, epaimahaiak hala erabakita, hiru aipamen eman zuen, Arantzazu Rodasi "Raftin" lanarekin, Imanol Arratibeli "Tronpeta hotsa maite zuen ahuntza" lanarengatik eta Pere Arratibeli "Futboleko zapatila magikoak" idazlanagatik.
3. kategorian (12-14 urte) lan bakarra aurkeztu zen eta hark saria jaso zuen, Itziar Artola "Nire laguna" lanarekin.
4. kategorian (14 urtetik aurrera) lan bakarra izan zen parte hartzaile, Estizen Agirresarobek "Lekua egin nahian" lanarekin lortu zuen saria.

Merezimendu osoz zorionak denei!

Urtero bezala parte hartzaile guztiek oparitxo bana jaso zuten.

Eskolako irakasleei eta epaimahaiako partaideei eskerrak eman beharra dago ekintza hau posible egiten dutelako. Eta nola ez, parte hartzaileei!



Kultur astea

XVII. Kultur Astea izan da aurtengoa, denentzako ekitaldiz betea. Hasiera buruhandiek eman zuten eta segidan etorri ziren dantzariak, bai herrikoak eta baita urrutikoak. "Argentinako tango dantzen lagunak" ziren sei dantzari eskaldunak. Dantza saio bikaina eskaini zien Etxolara bertaratutakoei. Beharbada, lehenengo aldiz ikusteko aukera izan genuen berrobotarrok. Beste batean, Idoia Santxez ipuin kontalariak haurrak liluratu zituen kontatutako istorioekin. Angel Cuerdok Asiako Mekong ibaiaren inguruan tsunamiaren ondoren bizi den egoera, diapositiba emanaldiaren bidez ezagutarazi zigun. Felix Belauntzaranez plater goxoak prestatzen irakatsi zuen.



Bestalde, pilota partiduak, eskulan erakusketa, mus txapelketa, toka txapelketa, txakolin dastaketa... Eskolako haurren emanaldi txundigarria aurten eskola berrian bertan, antzerki eta saio ezberdinez osatua. Ondoren, literatur lehiaketaren sari ematea. Berrikuntza bezala aurten, inguruko mendietara mendi irteera izan da heldu eta haurrentzat. Nekatuta etorri ziren baina zain zegoen hamaietakoa indarberritzeko.

Bukatzeko txikitxoan eta ez hain txikitxoan gustuko ekitaldia: Poxpolo eta Mokolo pailazoen, aho zabalik utzi zituzten ikustera joandako guztiak.

Irteera arrakastatsuak Ultzamara, Laguardiara eta Zaragozara



Berrobotarrak herria maite dutela, ez dutela saltzeko jakin badakigu baina herri-zulo hutsak ez direla ere erakutsi dute, bazterrak ikustea ere atsegin dutela, alegia. Aurten ere hori baieztatzeko aukera izan dute, Udalak antolatutako irteerak izan direla medio. 2007ko martxoaren 24ean Nafarroara, Ultzamara joan ziren. Ultzama bailarako Auza herrira joan ziren goizean, Astiz-eko ko-

bazuloak ikusi zituzten eta ondoren Auzan bazkaldu. Arratsaldean Ezkurdi etxea, Eltso erlezaintza bisitatu zuten, ondoren etxe aldera txintxo-txintxo gaueko 10ak baino lehen. 56 lagunek igaro zuten egun ederra. 2007ko maiatzaren 19an Arabako Laguardiara, Solar de Ayala upelategira joan ziren autobusez, eta ez nolana hiko, 2 solairutakoa. Han upelategira bisita eta bazkaria, ez dago zalantzarik joan zirenak hango mama gozoaz gozo-gozo eta ondoren goxo-goxo ibiliko zirenik. Eta azkena Zaragoza aldera, San Fermin egunean. Bidai hau Ekintza guraso elkartearekin batera antolatutakoa izan da. Zaragozako "Jolas parkera" egindako irteera hau ere besteak bezalaxe arrakastatsua izan da eta haur, gazte, heldu eta helduxeagoak ere parte hartu dute eta ez hain haurrak ere umeen pare ibili ziren.

Emakume langilearen eguna

Aurten ere martxoaren 9an, Emakume Langilearen Eguna zela eta, Udalak antolatuta, emakume talde ederra bildu zen Iriarte jatetxean afaltzeko. 70 emakume guztira, Iriarte goraino beteta, gazte eta heldu bildu ziren bertan giro bikainean. Horrelakoak gehiago izan daitezela.



Dantza eguna Ibarren

Ekainaren 9an Ibarren Dantza eguna ospatu zen. Berrobotar dantzariak ere han ziren, nola ez! Goizeko 10etarako, dotore-dotore, Ibarrenko plazan hantxe zeuden Berrobotar dantzariekin batera, Ibarrenko, Tolosako, Alzoko, Berastegiko eta Anoetakoak, ia 200 denera. Ibarren zehar ibili ziren, eta geldialdiak zituzten guneetan talde guztiak txandaka dantza saioak eskainiz egin zuten eguerdi artekoa.

Berrobik berri ugari eman du aurten ere kirolari dagokionez; frontenisa, txirrindua, korrika, triatloia, futbola, mendi martxa, kirol topaketa.

FRONTENISA

Artero bezala, aurten ere egin da Berrobiko Ion Ander Izagirre Frontenis txapelketa, XV. ekitaldia hain zuzen. Guztira, 190 neska-mutil izan dira, inoiz baino gehiago. Emaitzei dagokionez, mutiletan binaka Mikel Gotilla eta Jorge Beloki amezketarrak izan ziren txapelak: 30-9 irabazi zioten Xabier Romero eta Oskar Ramirez donostiar bikoteari.

Nesketan, Naiara Onsalo eta Lierni Garziarena (Berastegi) 30-14 gailendu ziren Nagore Lizardi eta Amaia Agirre biko-



tearen (Elduain-Billabona) aurka.

Mutiletan, banaka aurtengoan ere, eta 13. aldiz jarraian, Niko Artola izan da txapelak Mikel Goitiari 30-21 irabazi ostean.

Hala ere aurtengo ekitaldia berezia izan da, Ion Ander Izagirre frontenis txapelketako sortzaileetako bat gogoan izan baitugu bereziki. Badira 10 urte Ion Ander zendu zela, haren presentzia une oro dago ordea. Honela sari banaketaren garaian, omenaldi xume bat egin zen bere familia han zela. Bertso, irakurgai eta lore eskaintza egin zitzaion. Berrobiko herriak lehen, orain eta beti izango du gogoan Ion Ander Izagirre.

TXIRRINDUA ETA TRIATLOIA

Iaz moduan, Jose Luis Zabala izan da "Quebrantahuesos" txirrindulari proba gogorra egiten ausartu den berrobitarra, 205 km. eta 4 mendate gogor igoaz. Proba oso gogorra izan arren ongi bukatu zuen.

Honetaz gain, Jose Luisek berak ekainean Donostiako eta Zarauzko triatloiak egin zituen eta prestakuntza egoki burutuz probak arazorik gabe bukatzea lortu zuen.

KORRIKA

Berrobiko jaietan egiten den kro-sean hasten da berrobitar ia guztiontzat " Behobia -Donostia "

eta " Donostiako Maratoia "ri begira prestakuntza. Azaroa bitartean beste hainbat herrietan ere hartzen dutelarik parte : Ordizia, Tolosa, Donostia, Zumaia,...

Aurten, Behobia- Donostian parte hartu dutenak hauek izan dira; Iñigo Aurkia, Fermin Zubeldia, Ibai Madina, Ramon Olasagasti, Joxi Lizarralde, Juanjo Odriozola, Sebas Usandizaga, Aitor Ayerza, Jose Angel Garmendia eta Bergara aita-semeak.

Maratoian , aldiz , ez da hainbeste partaiderik ausartu, Behobiaren kilometroak bikoizten baititu, 42,195 km. Hemen Ramon Olasagastik eta Ibai Madinak korritu zuten, 3 ordu eta erdi inguruko denbora eginaz.



MENDI MARTXA



Berrobiko Aste Kulturallean aurten lehendabiziko aldiz burutu da mendi martxa. Goizeko zazpiretan 15 lagun Berrobiko udaletxe ondotik irten, Kixkiña aldetik Eldura pasa, Elduain, Ber-

rastegi, San Iorenzoko Muga, Olantze, Ibingo Langa eta ordu bata aldera Berrobiko plazatxora bueltatuz. Mendi martxan hamabosteko tropeltxo heldu hori, hamaikak aldera ateratako ume eta gurasoekin Olantzen elkartu ziren, Berrobira denak elkarrekin jeitsi ziren. Udaletxearen aurrean, amaieran, luntx ederra hartu zuten eta giro polita sortuz.

ESKOLA TXIKIEN IV. KIROL TOPAKETA



Ekainean, burutu zen Eskola Txikien Topaketa eta nola ez, Berrobiko S. Andres eskolako 3. 4. eta 5. mailako ikasleak han izan ziren Berazubin Tolosaldeko beste askorekin. Herri ezberdinetako umeekin taldeak egiten dira eta kirol jarduera desberdinetan parte hartu: pisu jaurtiketak, jabalina, korrika, pertiga,... Urteroko Topaketa hauen helburua, herri ezberdinetako umeak ezagutu, kirola egin eta batez ere ongi pasatzea izaten da.

FUTBOLEAN NESKAK TXAPELDUN TOLOSAN



Tolosako Sanjoanetako futbol txapelketa irabazi dute aurten alebin mailako neskek. Txapelketa bikaina egin eta gero, finala Amezketaiko Zumadi taldearen kontra jolastu zuten. Eta bai ederki jolastu ere, 3 eta 1 irabazi zutelako. Hitz hauei laguntzen dien argazkiei erreparatzen badiezue, antzemango duzue herriko neskek ez daudela bakarrik. Horrela da, izan ere, herriko taldean bi neskato lizartzar ere aritu ziren. Haiei ere, zorionak eta mila esker!

Dena dela, ez litzateke bidezkoa txapelketa aipatze hutsean geratzea, beste hainbat mutil eta neska Berrobiren izenean aritu direlako aurten eta aurreko urteetan. Horregatik, beharbada egokiena azken urteetako ibilbidearen berri ematea izango da. Memoria gauza ahula da, eta zerbaiteko edo norbaiteko ahazten bazaigu, barkatu, mesedez.

Azken hamarkada kontuan izaten badugu, 2005 arte gazteenek esku pelota txapelketatan bakarrik parte hartzen zuten. Aipatu urtean, Tolosako Sanjoanetako txapelketan aritu zen talde bat. Talde hura eskolako 3. eta 4. mailako neska-mutilek osatzen zuten; izan ere, Berrobiko gazteenen kirola lotu-lotua dago eskolarekin, bertako umeekin eta hauen gurasoekin. Eta ez zen azkena izan: azken bi ikasturteetan hainbat talde aritu delako urtean barrena Tolosaldean antolatzen diren bi txapelketetan: gabonetan, bata; eta, sanjuanetan,



bestea. Hasierako txapelketetan, neska eta mutilak batera aritu ziren; aurtengoetan, berriz, banatuta. Eta lehenengo urtean neskek asmatu dute: ez dira makalak!

Hala ere, ez dira neskek bakarrik poztu garaipenarekin, mutilek eta guraso guztiek nesken adinako poza izan dute eta. Eta horrela behar du. Gurea herri txikia izanda, ez dugulako aukerarik eta ezta gogorik ere "selezioak" egiten aritzeko. Garrantzitsuena parte hartzea da, bi hitzetan oinarritzen den parte hartzea: errespetoa eta elkartasuna.

Gainera, iaztik hona gazteenen kirol-jarduna zabaldu egin da. Batetik, lehen aldiz aritu da eskolako talde bat Gipuzkoako Diputazioak antolatutako txapelketetan, eskubaloian aurrea (zabaltzen ari da barrutia), eta futboleko gero. Eta, bestetik, aurtengo festetan jolastuko da bigarren urtez 14 urte bitartekoentzat egiten den frontenis-txapelketa (harrobia landu behar da).

Bukatzeko, konturatuko zineten ez dela inoren izenik aipatu artikulu honetan, asko izan direnean lan egin dutenak. Baina nahita egin da: umeak koskortu ahala, beste batzuk etortzen dira, eta haiekin beste guraso batzuek hartu behar dute ekintza hauek guztiak aurrera hartzeko ardura. Garrantzitsua, hartara, jarraipena da. Horrela izan dadila!

Begiratu zientziari beste era batera

gizarte ekintza

hezkuntza



Kutxak, bere Gizarte-Ekintzaren bidez, zientzia jolasgarriago bihurtzeko formula zehatza aurkitu du, Zientziaren KutxaGunea.

Ingurunean duguna hainbat sistema elkarrengarieren bitartez uler dezagun asmatutako gune bat. Hemen ukitu, behatu, ulertu, gozatu egin baitezakezu. Zatoz eta begira egiazu munduari beste begirada batez.

- 170 esperimentu interaktibo.
- 10 erakusketa finko (gaikakoak).
- Planetarium digitala eta Planetarium Txikia (umearzaka).
- Elektrizitate-tailerra.
- Denboraldi baterako erakusketak.
- Ikastetxeetarako hezkuntza-programak eta material didaktikoa.
- Animazio-ekintzak eta adin guztietako jendearentzako zuzeneko ikuskizunak.
- Aparkalekua, dahainik. Erraz iristen da Museora.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**Zatoz Zientziaren
kutxaGunera**

Mikeletegi Pasealekua 45. DONOSTIA

Museoari buruzko informazioa osatzeko, bisita ezazu kutxasocial.net edo deitu kutxaren Gizarte Ekintzaren informazio-bulegora: **943 00 12 17.**

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 kutxa



Berrobitar orain, eta lehen...

Ezkerreko argazkian: Felipe eta Felix Rodrigo anaiak eta Leandro Rodriguez (azken hau mardoaren atzean ezkutatuta) Cuencako Almonacid del Marquesado herri inguruko sorietan goldean. Atzean, mahastiak.

Goiko argazkian: Felix Rodrigoren aita zena, Felix bera ere, Balbina ama, Leandro Rodriguez eta beste herritar bat sorroan, patata ateratzen, eta atzean gari sorozabalak, Almonacid del Marquesado herri berean.